



LEXOTI BERTSOLARIA

LEXOTI BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

(157)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 — Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono (943) 67 12 82

Elkar lanean:

IÑAKI ARBELAITZ GELBENTZU
MIREN MITXELENA BELAUNTZARAN
JOXE ANJEL ARBELAITZ IRASTORTZA
MARIANO OSTOLAIZ
ANTONIO ZAVALA

LEXOTI BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1982

Azala: Lexoti, Oiartxungo Ergoinen,
«Txuntxurruen» gidari.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzalle: Onena - Lasarte

Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

ISBN 84-7158-099-3

Depósito Legal: S. S. 238/82

Mayo 1982

ARKIBIDEA

Hitzaurrea	9
Jaiotetxea	15
Gurasoak eta senideak	17
Lantokiak	21
Bertsotan	27
Donostiako <i>Perlan</i>	31
Bertso-saltzalle	35
Gaixorik	39
Zenbait gertaera Lexotiren ahotik	43
Apostuak	53
Zenbait gertaera ta bertso Lexotiri jasoak	65
Nere amari	73
Nere bizitza	77
Arrebari	81
Oiartzun	83
Andereño bat txuriz jantzia	87
Zillarrezko eztaiak	91
Erriko damak	93
Bertso berriak 1977'gn abuztuan Lezoti'k jarriak	97
Nere buruari	103
San Estebani bertsuak Lezoti'k jarriak	107
Nere bizitzako egun tristeena	111
Nere lengusuari	115
Goizueta'ko Maritxuri	117
Gazte denborako andregai bati	121

Altzibar'tik Zaldiñ'era	125
Txikierdi'tik Gartxitene'ra	127
Garbuno	131
Bruno nere lagun zenari	133
Nere munduko bizimodua	137
Zuzentasuna	139
Jaungoikoa ta fedia	141
Zenbait bertso	145
Biriatu'n	153
Gauerdi bateko bertsoak	159

HITZAURREA

Lexoti bertsotan ikusi eta entzun dugunok, ezingo dizkiegu besteei haren tajua eta kera adierazi. Oso zaharra ez banaiz ere, behar aiña adin badut, izan ere, orain hogeit edo hogeitabost urte aurreragoko Lexoti haretaz oroitzeko.

Xanixtebanetan eta, meza nagusia ondoren Oiartzungo plazara bertsoak entzutera biltzen giñanok, han izaten genuen aukera, urte batean ez bazen bestean, Lexoti Xabale aurreko tabladora igotzen ikustekoa.

Gizon argala zen Lexoti, beti horrela izan da. Luzexta, ezpain fiñak, sudur xorrotxa, eta begietan halako irri beldurti eta era berean pikaro bat. Lexotiren ahotik ez genuen filosofia biurririk eta ideia nagusirik entzungo; baiña bai, horren ordez, zirikada, ziztada eta xeblekeria ugari. Eta noizpeinka, batek gutxien espero zuenean, halako bertso xamur eta gizakoiren bat.

Lexotiri gehien gustatzen zitzaiona, Joxe Joakin Mitxelena zirikatzea izaten zen. Lagun eta adiskideak izaki, eta horrek nunbait bula bereziren bat eskeintzen Lexotiri nabarmenkeri batzuk alai asko ixurtzeko. Horixe zen, egia esan, askotan arritzen ninduena: bertsolariek el-

karri zenbaitetan ametitzen zioten libertadea. Ez dut uste Euskal Herrian beste inork horrela-ko dispentsarik inoiz izan duenik.

Egia esan, oso zaila da gaur egun Lexoti eta Zepai-ren gisako bertsolariak plazetan entzutea. Batak bere moduzko sententziya xeble bat botako zizun, eta besteak, ondoren, errespontsua. Aserre itxura batzuk ere egingo zituzten aldiz, baiña azkenean denak elkarrekin bazkaltzera. Oraingo bertsolarien arguiiak beste tankera batzuk ditu; tankerak eta, zenbaitetan, pretentsiyuak ere.

Ez da beraz kazkezurra gehiegi estutu behar Lexoti eskola zarreko azken bertsolariatatik bat izan dugula erabakitzeke. Eta norbaitek honela galdegin lezake: hainbestetan aipatutako «eskola zarreko» bertsolarien ezaugarriak zeintzuk dira ba?

Alde batetik, bat-batekotasunaren griña; eskola zarreko bertsolaria ez da beti bere zakutik ibiltzen, baiña almazen propiyua erabiltzen badaki. Horrekin batera, eskolarik eza; horrek ez du esan nahi eskola zaharrekō bertsolaria ezjakiña denik, letra gabea baizik, nahiz eta batzutan —Lexotiren kasuan, adibidez— dotriña eta bi edo hiru erregela ikasia izaki. Hirugarren ezaugarria, bizitzarekiko destrebetasuna; egun batean pobre, bestietan jauna, eskola zarreko bertsolari askok ez du ofizio eta lanbide jakiñik; ez du etxe fijorik; ez du emazte eta famelia propio-rik (guraso eta senideak ezik).

Eskola zarreko bertsolariatatik eredu bezela

jarri litekena Txirrita dugu agian. Gorengoena eta, zergatik ez, kasik azkena. Garai eta bizi-baldintza berezi batzuetatik sortutakoa dugu «eskola zarreko» bertsolarien jeneroa. Eskola zarreko bertsolariaren «institutoa», sagardotegia eta taberna ditugu; hor egiten zuten batxillerra. Unibertsidadea, berriz, plaza.

Norbaitek esan lezake geroagoko eta gaurko bertsolari gehienak ere ikasbide hoietatik ibiliak direla. Bai, noski. Baiña beste baldintzapen batzuekin, eta, batez ere, beste estilo batekin. Gerratik honuntzeko bertsolari askoren ispillua Basarri izan baita; hau da, gizon eskolatuago eta, batez ere, irakurriago bat. Eta eboluzio horren azken adierazle, Amuriza, nahiz bere bertsoen edukiak beste era batekoak izan (eta horretxegatik, hain zuzen).

Neri etzait batere kostatzen Lexoti bat Prantses-Txikia edo Txirritaren ondoan imajinatzea, bataren eta bestearen ahalmenen neurria aparte utzita. Asko kostatzen zait, ordea, Amurizaren ondoan ikustea. Hor badago eten bat, kroska bat, tarte bat, eta ez dut uste bertsotarako bi molde hoiek batere errez lotu litezkenik.

Lexoti, bere bizitzan eta bere bertsogintzan, erabe da. Momentuko txispa hori eskeiñiko dizu, inspirazio apur hori, eta gero hor joango da estrata hestuetan zehar, erregebideak beste-erentzat utzirik. Ez du filosofia edo politika jakinik; ez dizu bizi-arau zehatzik adieraziko. Bere bertsoen ekarriak intuizioz lortzen ditu.

Eta, jakiña, ez da inoiz demarako griña aztu

behar. Lexoti bere bizitzan oso demazalea izan da: korrikalari, ibiltari, harri jasotzaile, haizko-lari, ahari eta oillar prestatzaille. Eta bertsoetan ere berdin, demazale purrkatu. Lexotiri dema-giroa falta bazaio, bereak egin du. Lexotik kontrario bat behar du beti aldamenean, eta ez baldin badu asmatu egingo du; zirikatzen hasiko zaio norbaiti, Mitxelena, Uztapide edo Koxme Lizasori. Orain emaztearen gaia aterako du; urrengoan diruarena, dituen eta ez dituen aberastasunena (Lazkao-Txikik behin bota omen zion bezela, «*hik milloi asko dituk / zorretan utziak*»); beste egun batean, mundu hontan egin dituen lan haundi eta izugarrien aipamena egingo du, lagun-projimuak hori aitortzen ez badio ere; halako urrengo batean Uztapide berari igual botako dio zapla «*hik neekin ikasi yun bertsoetan*».

Baiña Lexoti ez da arrua. Bere buruaren mugak ederki ezagutzen ditu, eta halako batean sentimentuak zintzurretik heltzen badio, berdin aitortuko dizkitzu eskasia, ezintasun eta baldarkeriak (berak bere buruari egozten dizkionak eta besteengandik, besteen iritziz jasoak).

Hamar milla lanbidetan aritutakoa, «kelmenak» irauñ dioten bitartean, ez da lotsatuko eta ez arrotuko ere bere gaurko egoera eroria aitortzen: mutiltzar, osasun eskasa, zartzaroa gainean, lanbide apala... Ez da lotsatuko ere bere ongilleen izenak aipatzerakoan; eta nik esango nuke hori egiterakoan halako xamurtasun berezi bat ateratzen zaiola barru-barrutik.

Izan ere, Lexotiri etzaio bere amaren irudia
iñoiz desegingo. Berak aitortzen duenez, ama-
ren nortasunak betetzen du bere haurtzaroaren
oroitzapena; eta ez haurtzaroarena bakarrik,
hura bizi izan arteko denbora osoarena baizik.
Ama hil ezker, Lexoti benetan erabe da, galdu-
ta bezela dabil munduan, eta ordezkoez ezin
diote oso-osorik zulo hura bete.

Bestetik, Lexotiren bertsogintzan denetik
dago, eduki eta molde aldetik. Baiña batzutan,
ustegabe bezela, halako pitxi dizdiratsuak aurki
ditzakegu. Une hoietan, badirudi Lexotiri ba-
rruan daraman gizatasunaren sakon-sakonena
agirira atera zaiola. Eta horrelakoetan, Uztapi-
de batek lotsarik gabe izenpetuko lituzken esal-
diak irtetzen zaizkio. Adibidez, ezkontz-hauste
edo dibortzioaz ari delarik, honako hau:

Ezkontzen denak berekin dauka
arantzazko gurutzia,
zer uste du ba: munduan beti
atsegintsu ibiltzia?

Edo, beste une batean, agintetzarako izan li-
teken programa baten atal berezi eta oso ederki
pentsatu eta esantako hau:

Alkatetzara irixten banaiz
jarriko ditut legiak,
danentzat ez da erreza baña
askorentzako obiak.
Aberatsari lapurtu gabe
pixka bat poztu pobriak,
askatasunez izan ditzala
nork bere eskubidiak.

Hainbeste hitz haundi eta programa arroren oihartzun gezurrezkoak belarrietan zurrumurruka ditugun garai hauetan, ez leude ez gaizki Lexotiren hitz neurtu eta zentzudun hoiek.

Azken-azkenean, bertsolari eta poetak baitira askotan giza egiaren neurria erakusten digutenak, Maixta-Borda baserrian jaioak izanik ere.

Urrietan, maiatzak 13
Xabier Lete

JAIOTETXEA

Jose Luis Lekuona Garaiar, Lexoti edo Lezoti izenordez, 1925-eko Azaroaren 11-n jaio-tzen da, Maixta-Borda baserrian.

Lezoti, Oiartzungo Ergoin bailaran kokatu-rik zegoen baserri bat zen, Bortane inguruan. Gaurregun desegina eta haren lekuan etxe berri bat eraikia dago.

Maixta-Borda baserria Sepulkro eta Buenos Aires alderako bide bazterrean kokatzen zen. Bide hontatik pixka bat alde egin behar zen, beste bide zihor batetan sartuaz, etxeraino iris-teko. Gaurregun horma zahar batzuk besterik ez dira gelditzen eta Suantzako bidetik ondo ikusten dira. Etxe honi Mixiyuana ere esaten zioten.

Lexotiren aitona morroi egondu zen Oiartzungo bailarako Lezoti baserrian. Joxe Luisi hortikan datorkio izengoiti hori. Aitonari horrela deitzen zioten eta aitari ere bai.

Maixta-Bordatik berehala Egurtzegi-txikira eramaten dute Lexoti, gutxi gora behera urte t'erdi duela. Egurtzegi-txiki baserria Ergoin bailaran kokatzen da, Egiar mendiaren magalean, Buenabista eta Pikoketa aldeko bidean. Baserri ttiki bat da eta gaur berritua.

Egurtzegi-txikitik familia osoa Iturriotz bailarako Maritxo baserrira doa. Maritxo baserria, Estrataburu pasa eta Amazkar aldera zihoan bide zaharrean, gaineko aldean, zegoen. Aurrean, Bordazoko kokatzen da, eta tartean Bordazokoko eta Maritxoko zokoa; goraxeago, Amazkar.

Gaurregun desegina dago oso osorik. Espaindegikoa zen etxea. Espaindegi, edo Auspangidegi, Iturriotzko kalean dago.

Behi bat eta oilo batzuk besterik ez zituen baserri horietako bat zen Maritxo. Baina 1948 urtean baserri hori erre egiten da, eta Maixta-Bordara doa familia, izeba batengana.

Komunio haundia, Maritxon bizi zela egin zuen, eta horretarako dotrina Aierdin ikasi zuen, bere izeba Maurixirekin.

— Lenotik Aizaten eskolan ibilia niñun eta dotriña dena memoiz banekiken.

Belaztegiko amonak ematen zuen eskola Aizaten. Pentsatu beraz zer nolako ibilaldia egiten zuen Lexotik Maritxotik Aierdira, bata Ergoien eta bestea Iturriotzen kokaturik daudela kontutan hartzen badugu.

GURASOAK ETA SENIDEAK

Lexotiren gurasoak Jose Antonio Lekuona Peluaga eta Maria Jeronima Garaiar Oiarzabal ziren. Honela dio Oiartzungo bataio liburuak: «Jose Antonio Lekuona Peluaga, Oiartzunen jaioa 1895-eko Azaroaren 19-an, Viuda base-rrian (1)».

Jaiotetxearen izena argi eta garbi *Viuda* agertzen da. Gure ustez Biura beharko luke.

«Maria Jeronima Garaiar Oiarzabal, Oiar-
tzunen jaioa, 1892eko Urtarrilaren 23an, Aristi-
zabal baserrian (2)».

(1) Oiartzungo hogeigarren bataio liburuan, hirugarren orriko atzekaldean, 120 zenbakian.

(2) Oiartzungo hemeretzigarren bataio liburuan, 185 orriko atzekaldean, 10 zenbakian.

Aristizabal baserria Iturriotz bailaran dago kokaturik, Eldotzko errekatik Zulotibarko erre-kara zabaltzen hasten den lekuan, Lasao eta Txalakako Errotaren kaxkoan.

Aitak hamar senide zituen: Manuel Maria Rosario, Manuela Inazia Gabina, Joxe Antonio, Frantzisko Maria, Joxe Kruz, Maurizia, Jakoba, Juan Joxe, Joxe Maria, Joakin. Lehengo laurak Biuran jaio ziren, eta beste seiak Urdinolan.

Senide hautetatik bost umetan hil ziren; adibidez, Joakin etxe ondoan aurkitzen zen Zuloaga errotako presara erori eta bertan ito.

Lexotiren aita, bertsoan zer edo zer ibiltzen zen. Mariano Ostolaizek gogoratu digu behin nola Joxe Antoniok bota zuen honako koplak hau, Anatxuri baserrian, urte zaharretan:

Uda zabalín arbola onek
ematen duen itzala,
etxe ontako famili dana
Jaunak guarda dezala.

Aitaren aldeko aiton-amonak, Joxe Manuel eta Josefa Benantzia, Oiartzun eta Irungoak ditugu. Amona, San Martzial mendi inguruan kokaturiko Berrua baserrikoa.

Aipamen berezia merezi du Lexotiren aitona: Joxe Manuel Lekuona Etxagoien. Aren bizia eta bertsoak *Auspoa*-ren 115 alean jasoak

daude. Hasieran argitzen dugunez, honengandik datorkio Joxe Luisi Lexoti izengoitia.

Bere aiton-amonak ez ditu Lexotik ahantzi-ta. Orain berriro bertso hau eskeini die:

Ni Oiartzunen bizitutzen naiz
aiton-amonen etxian,
negar-malkoak irtetzen zaizkit
aientzat akordatzian.
Gure Jainkuak ala nai eta
mundu ontatik jua zian,
besarkada bat egingo diet
Josefatera biltzian.

Lexotiren aita, Joxe Antonio, 1948-eko Maiatzaren 13-an hil zen, berrogeitamairu urterekin. Aspalditxotik minez zegoen, Arditurriko minetako gaitza zela medio; eta lanerako gauza ez zen. Arrazoi horrengatik batetik, eta ez zuelako beste anaiarik bestetik, Lexotik ez zuen soldaduzkarik egin.

Amak senide hauek zituen: Joxe Bernardo, Maria Jeronima, Joxe Joakin, Hilario, Joxe Benito eta Roxari. Gaurregun, Roxari bakarrik bizi da, Billabonan.

Amaren gurasoak, Inazio, Oiartzuarra, eta Luisa Anjela, Astigarragakoa, ziren.

Lexotiren ama 1959-eko Azaroaren 14-ean hil zen, hirurogeitazazpi urterekin. Lexotik ama asko maite zuen. Berari jarria badu bertso sail

bat, harekiko sentimenduak garbi azalduaz.
Baita beste bi bertso hauek ere:

Au da lastima ama dedala
emendikan apartian,
lur ontatikan aldegin zuen
bai egun triste batian.
Seme bakarra nola bainintzan
niñun biotzez maitian,
gaur ez bezela izaten nintzan
ura emen zen artian.

Nik ama zana maite nun eta
maite benetan txit errez,
mundu ontatik joan zan eta
orain bizi naiz aldrebes;
bañan izketan emen ari naiz
benetako gizon-legez,
pena bat bakar-bakarra daukat:
geiago ikusterik ez.

Lexotik bi arreba ditu:

Maria Rosario, Billabonara ezkondua Anjel
Lasarekin, gaur Andoainen bizi dana.

Pepita, 1954-eko Azaroan Telleria baserrira
ezkondua Joxe Antonio Zubiarrain Otxotore-
narekin. Duela hogeitabost bat urte. Ereñozuko
Bordaberri baserrira aldatu ziren.

LANTOKIAK

Lexotik ez du ofiziorik sekulan ikasi, baina mila lekutan lana egin du.

Hasteko, hamazazpi urtetan, Joxe Krutx Baintetako guardarekin ibiltzen da.

Joxe Krutx, urte askotan Errenderiako menditako guarda izan ondoren, 1979 urtean erretiratu zen, eta 1982eko Otsailaren 12an hil, Oiarzungo Iturriotz bailaran.

1943 urtean, Eldotzko zentralako eta Goiko Bordako kanalak zaintzea da Lexotiren eginkizun berezia.

Berarekin batera, Amaxkarko senide zaharrena, Martin Rekalde, ari da. Ez zuten hau lan fijoja: hamabostaldiko lana igual izaten zuten, eta gero berriro geldirik.

Mayor-eneko palazioan, Aduritzeneko gainean, sei edo zazpi hilabete pasatzen ditu la-

nean. Honenbeste aipatutako *palazio* hau, Nikolas Iruretagoiena eta Frantzisko Jauregi'k egina da.

Garai honetan, Lexoti arginekin pintxe dabil, Erreti-txikiko Joxe Antoniorekin.

Handik zazpi bat urtetara, 1950 urte aldera, Eldotztik Erreterriara ura eramaten zuten kanaletan obra haundiak egin zituzten; zaharrak berri bategi ere. Kanalak ebakitzen eta, Joxe Roteta ibiltzen zen.

Lexotik orduan hogeitabost urte zituen, eta fijo bere kontura kanalak berritzeko materiala karraio egiteko lana hartu zuen.

Itzain hauek izaten zituen: Martin Dukatenekoa, Amaxkar, Iraiko Ezkerra, Arixtizabaleko Sebastian, Egiederko Gregorio.

Hauen lana, porlana eta ondarra Etxenagusian kargatu eta lantokira eramatea zen. Lan agintzailea Frantzisko Jauregi zen, Patxi Zerri deitzen ziotena.

Zaku porlana bakoitzaren karrioaren truk hiru pezta kobratzen zituen; ondarrarekin, berriz, hiru metro kubikoko jorraa bakoitzaren truk hamairu duro.

Joxe Bernardo *Mixiyo-Zarra* deitutako osabarekin ere ibilia da Lexoti.

— Oi nere aman anaia yun. Guekin bizitzen yun Maritxon, itxia erre zen bitartin; eta gero Maixta-Bordan. Garai hartako beste itzaien formakua ez zen. Goiara difuntua eta beste batzuk bezala Arlepotik Pasaira minerala erama-

ten ez zen ibiltzen. Norbaitek iratzeko, lurra iraultzeko, abonatzeko edo horrelako lanik izaten bazuen, horretarako prestatzen zen nere osaba itzaia.

Ondoren, basoan iragaten ditu zenbait hilabete Bengoetxea naparrarekin, toki jakinik sekulan izan gabe, baina beti mugaz honunzko aldean: Bera-Bidasoan, Ibardinen eta abar. Askotan aste osoa mendian pasatzen zuten, eta aste-ko jornala hogeitabost durokoa zen.

Pasaiko portuan ere ibili zen Lexoti lanean. Hogeitabost edo hogeitazazpi urte zituen orduan. Lana egunero diferentea izaten zuten, fijoak ez behintzat, itxas-ontziak deskargatzen gehienez.

Lingotea eta abar, klase asko izaten ziren. Ikatza behintzat askotan. Bazen bat oso pisu haundiko jeneroa; pirita alegia.

Itxas-ontzietan lanik etzegoenean, legorrear aritzen ziren.

Joxe Joakin Mitxelena bertsolariak eramaten zuen portura lanera, bera ere han aritzen baitzen. Zazpi hilabete egin zituen portuan Lexotik.

Lexotik ez zuen bizikletarik eta ezer. Errenderira oinez joaten zen Maixta-Bordatik. Gero, tranbe zaharrean Errenderiatik Pasaiara. Bi edo lau sos kostatzen zen. Mitxelena bizikletan joaten zen.

Gosaria etxetik eramaten zuen Lexotik. Eta bazkaria, *Romeral Txikia* esaten zioten batean, Pasaia Antxon, egiten zuen.

Zortzi ordu egunean egiten zuen lana.

Hiru klasetako pioi langileak izaten ziren: fijo zirenak eta numeroa zutenak. Lexoti ez zen fijo, baina bazuen numeroa. Eta besteak anbulanteak, hirugarren klasea alegia.

Ordu extraordinario edo bereziak, fijo zirenak bakarrik sartzen zituzten.

Mitxelena ondo izaten zen orduan.

Atxamarta deitzen zioten bat zen enkargatua, Mitxelena eta Lexotirena. Eskua bi burnik arrapatu zioten azidente batean eta halako formarekin gelditu, eta hortik izengoitia. Pepe deitzen zioten baita ere, bere izena Joxe zuelako.

Lana, deskargan, binaka egiten zen. Lexotiren laguna, Joxe Urdaintturrikoa, Rufino Britxoferraren aita zen. Bera baino askoz ere zaharragoa; baina ondo konpontzen ziren. Harekin ondo izaten zen.

Bi lagunek osatzen zuten parejari, *eskua* esaten zitzaion. Beraz, Lexoti eta Joxe Urdaintturrikoak *eskua* egiten zuten.

Astean behin, larunbatetan, tripakiak janez, Santa Klarako *Portu* tabernan egiten zituzten beren atsedenaldiak. Ohitura hau oso gogozkoa zuten.

Lexoti ez da jornalaz gogoratzen; ezta pasadizo edo garai hartako gertakizunetaz ere.

1959 urtean, hogeitamalau urterekin, Goizuetara joaten da Lexoti, itzain bezala lan egitera Joxe Bernardo Garaiarren idi parearekin. Hamar hilabete pasako ditu hor.

Menditik egurra ekartzen zuen gehienbat. Garai hortakoa da, bai Goizuetako elizaren konponketa eta bai pelotaleku berriaren eraikuntza ere. Eguneko larogei ta hamabost duro irabazten zituen.

Goizean goiz joan mendira, puskak gurdian kargatu eta ahal zen azkarrena berriro herria. Amaiak alderako etortzen omen zen gehien-tan. Gero, ahal zen gehiena dibertitu.

Maritxunean apopilo egon zen denbora guztian —gaur *Bar Maritxu*—, eta egunean zazpi duro ordaintzen zuen. *Maritxu* ostatua bertako senar-emazteak eramaten zuten.

Lexotik berak aitortzen duen bezala, oso ondo gobernatzen zuten eta benetako oroitzapen ona dauka, batez ere etxeko andreaz. Zenbait bertso ere jarri dizkio emakume honi.

Lexotik dionez, irabazitako guztia gastatzen zuen, Bibiano betenaioa, sendagilea eta herriko jende haundiarekin jokoan eginez. Igeltsero bat ere izaten zuten berekin.

Txakolina jokatzten zuten musean, eta edan. Orduan txakolina ez zuen edozeinek edaten. *Bar Maritxo* tabernan aritzen ziren jokoan.

Andres Narbarte *Xalto* bertsolariarekin ere aritzen zen bertsotan jo ta *fuego*.

Arratsaldean beste biajea egiten zuen, bazkal ondoan aterata. Egunean bi jorraa edo karrío menditik.

Leitza aldeko mendietatik ekartzen zuen karga, jeneralean egurra.

Leitzako mendiak bereala billatzen dira, Goizuetatik irten orduko.

Leitzan maistra zegoen batekin adiskidetasun haundia egin zuen Lexotik garai hartan.

Goizuetan lagunak illea hartzen zioten, Leitzako maistra andregaiia zuela esanez.

Lasarte ta biak Goizuetan bertsoan aritu omen ziren urte batez, Goizuetako festetan. Egun hartan ezagutu omen zuen Leitzako maistra.

Ondoren, Lexotik urte mordoska pasako ditu lan jatorrik egin gabe, mila joko eta aposturen artean.

Esan dezakegu hamairu urte hauetan dene-tik egin duela.

1972 urtean, Oiartzungo Udaletxean hastenda Lexoti kale-garbitzaile bezala.

Berak honela dio:

– Altzibarren nengoela, Erreti *berrenderua* sartu zen, pioia falta zuela esanaz. Galdetu zian ia pasatuko nittun egun batzuk berarekin, lengo pioia miñez zeola ta. Eta nik baietz. Ala giñala, *berrendero* zarra gaizkitu zen eta olaxe gelditu nintzan.

BERTSOTAN

Bertsotarako apizioa hamabost urtetan sortzen zaio Lexotiri, eta batez ere sagardotegietan.

Oiartzungo orduko sagardotegi batzuk honako hauek dira: Suantza, Amazkar, Trabaleku, Portugal eta abar.

Lexoti Praileneko etxean dabil eta han bertsoan aritzen da Praile difuntoa, Baintetako Jeronimo Zabala, Anbolatzeko Joxe Luis eta Mariano Ostolaizekin. Hau Olatzen morroi egoten zen.

Hona hemen Lexotik garai hartako giroaz zer dion:

– Zabala bertsolai ona zen; tabernarako beintzat oso ona. Prailekin ere oso gogor aritzen nintzan, eta sotarik gabeko frailia ta disparate denak esaten nizkan. Ordun nik gaizki esaten besterik ez bainekien. An goian oikin aritzen nintzen; eta gero, bera etorri nintzanin, Torresko Joxe eta Portugaleko Inaxiorekin. Ondoren, emezortzi bat urterekin, Joxe Mari Iriarte *Frantzesa*-rekin asi nintzan, eta bai Jose Joakin Mitxelenarekin ere.

Lehenengo aldiz Iturriotzen abestuko du Lexotik jende aurrean.

Lau bertsolari azaltzen dira: Joxe Torreskoa, Anbolatzko Joxe Luis *Jaungoikoa*, Joxe Joakin Mitxelena ta Lexoti.

Sagardotegiak utzi eta tabernetan saiatzen da Lexoti, batez ere Usaskuan eta Zuzperrin.

Garai honetan hiru taberna daude Iturriotzen: Gartxitene, Disparatene eta Mikelene.

Igandero Jeronimo Zabalarekin alkartzen da, eta arratsaldeetan, askari puxka bat egin ondoren, illunabarrean, beste batzurekin bertsoak botzen dituzte, etxera joateko presarik gabe.

Nolanahi, askaria beti egiten dute. Lexotik honela dio:

– Gutxi irabazten genun, biño dirua're gutxi bear izaten zen.

Normalki, aurretik traturik ez zen behin ere egiten. Tabernara joan, edo sagardotegira, eta inor suertatzen bazen kanturako, ondo; eta bestela, isil isilik arratsaldea pasa eta etxera, berriz ere.

Beraz, hamabost urtetan hasi eta hogeitabitant plazaratu zen arte, makiña bat saio eta jardunaldi egiten ditu Lexotik Oiartzungo sagardotegi eta tabernetan, bertsoetan eten gabe, santa sekulan sosik kobratu gabe, Mitxelena, *Franzesa* eta beste batzurekin.

– Aik ni biño obik ttuken, biño ni *fuego* beakin! Kobratu, lenbiziko kobratu nuna *Victoria Eugenia*-n berreun ta berrogeitamar duro; eta

urte berian Oiartzunen kantatu nin Basarrikin ta... Oain ez nak goatzen zenbat eman ziten orduan.

Herritik kanpora joaten hasten da Lexoti; bizikleta hartu ta ia beti Mitxelenarekin dabil:

– Astigarraga ta inguruko herrietara, fiestetara eta fiestik etzenin ere bai.

Berrobi eta Nafarroako Zubietara joaten hasten direnean, berriz, elkarrekin Mitxelena-ren motuan joaten dira.


Bertso saioak nolakoak izaten ziren? Beharrezko dago aipatzea beti gai librea ohi dela eta gainera saioak izugarri luzeak izaten direla.

Oroitzapen berezi bat honela kondatzen du Lexotik:

– Bein, Zepai ta Uztapide zin Oilalumera joatekuk; biño Zepai etzen etorri eta neri deitu ziten. Saio bukaeran, berrogeitamar duro eman zioten Uztapideri eta neri ogeitamar duro bakarrak, apizionatua bai nintzen. Orduan e difentziak izaten zila ikusten duzue.

Sagardotegietako bertsolari denak ez dira plazan azaltzen.

Baina zeintzuk dira garai hartako plazako bertsolariak? Hona hemen garrantzitsuenak: Basarri, Uztapide, Zepai, Mitxelena, Saiburu, Lexoti, Elio.



Lexoti, bertso kantari

DONOSTIAKO *PERLA*-N

1947 urtean, Donostiako *Perla*-n, bertsolari-txapelketa bat antolatzen dute. Hogeita bi bertsolari azaltzen dira eta Lexotik irabazten du.

Hogeita bi urterekin, nahiko komeri izaten du Lexotik txapelketa honetan parte hartzeko: Manuel Arbelaitz-ek —orduko alkatea— eta Mitxelena bertsolariak Lexoti Donostiara joatea ez dute nahi. Hoiek Iriarte-k irabaztea nahi dute noski.

— Hi beste urte batean joango haiz, oraindik gaztea haiz eta! —esaten diote.

Lanak agudo egin ondoren, amari erropak jartzeko esaten dio Lexotik, pelota partida jokatatu behar duela eta.

Errenteriaraino oinez joaten da, eta gero tranbeaz Donostiara, hamabi duro patrikan duela.

Eta han, oiartzuarrak arrapatzen dituenean, ze nolako gauza ez-ustekoa! Behintzat, denei kopa bana eskeintzen die. Baina Oiartzunen ko-

pak sei erreal balio eta Donostian duro bat; eta, bederatzi lagun izatearekin, hamabi durotatik hiru duro bakarrak gelditzen zaizkio.

– Izorratu nauk ederki oraintxe; patrikan sos askorik gabe gelditu nauk ba! —esaten dio bere buruari.

Gero, txapelketa berak irabazten du eta baita berrogeitamar duroko saria ere. Kanpora ateratzen denean, esaten du:

– Donostian dagoen gizonik aberatsena naiz orain!

Juradoa honako hiru gizon hauek osatzen dute: Antonino Pagola, Ernanikoa; Benantzio Rekalde, oiartzuarra baina Donostian albaitari egoten zena; eta Txomin San Sebastian, Astigarragako sakristaua. Gai jartzailea: Basarri. Behin honela jartzen dio gaia:

– Oherakoan, bost milioi pezeta bilatu ditu Lexotik. Zer egingo zenduke haiekin?

Eta Lexotik:

Suerte batez milloi eder oik
nik billatuko banitu,
aizu, Basarri, zer eingo nuken
laister biaizu aditu:
ni ezagutzen nauten guziyak
egin litezke arritu,
Lexotikuak errukalmentuk
beartsuentzat baditu,
bat netzat gorde ta beste lau oik
pobrin tartian partitu.

Finala, Astigarragako Inazio Berasarte *Elio* bertsolariarekin jokutzen du. Txapelketa bukatu baino lehen, biak oso berdin ari dira eta:

— Enpatea bientzat dela konformatuko al zarete?

— Ez —dio Lexotik—. Jokatu egin nahi dut, galdu ala irabazi!

Lexotik irabazten du.

Egun hartako beste lau bertso ere gogoan ditu Lexotik: bi Eliorenak eta bi bereak gai librean. Berasarte ezkongaiia zen, etxean bakarrik bizi zena. Lexoti zen asieran eta hau kantatzen dio:

Berasarte au bakar-bakarrik
etxian bizi da triste,
komententzi bat jarriko diot,
txarra danik ez det uste:
etxean dauzkat basarrirako
propiyak bi neska gazte,
anaia morroi artu nazazu
eta arreba emazte.

Elio:

Eztago dudik, Lexotik nau ni
biotzetikan maitian,
danan aurrian aitortuko det
gauza nola leitekian:
mesedetako ustez artuta
au izango det kaltian,
gu ez giñazke ondo etorri
bi alper etxe batian.

Lexoti:

Erregin batek ainbeste gradu
gure Pepitak baditu,
ta, Berasarte, ura artu gabe
etzaitzela gelditu.

Azuetako jende guziya
guk eingo dugu arritu:
langille ona arreba da ta
biok mantenduko gaitu.

Elio:

Etzakela emen gaurkuan kanta
gezurkeri eta saltsik,
batere neri etzait gustatzen
Lexotiku onen martxik.
Soñurik gabe santa sekulan
nik ez det egiten dantzik,
langille ona arreba bada
ez du anaiaren antzik.

BERTSO-SALTZALLE

Lexotik, Latasa eta Luxiaren apostua gai hartuta, bertsoak jarri zituen. Baita Gipuzkoa ta Nafarroan saldu ere. 1959 urtea zen (1).

Lehendabizi, Lexotiren gogoan, bi xentimo kostatzen omen zen bertso papera. Urrena, Txirrita ta hoiek amar xentimora altxa omen zuten. Gero, pezeta batera igo zen prezioa.

Lexotik, berriz, duro batera jaso. Bera izan omen zen, duro batean bertso papera lehendabizi saldu zuena.

Lexotik, berak bertsoak jarri, berak kantatu, ta berak saldu papera. Marka polita izan zen hau.

Tolosan, behin, ferietako *charlatán* haietako bat, —*txarlote* esaten du berak—, han ari omen zen bere jeneroa ezin saldurikan.

Lexoti hor agertu omen da, bere bertsoak kantari. Jende guztia Lexotirengana orduan.

Txarlote hura aguazillarengana joan omen zen protesta egitera.

(1) Bertso hauek = *Auspoa* 39-an.

Aguazilla etorri eta Lexotiri papera saltzen galerazi. Eta ez hori bakarra: inspeziora edo udaletxera eraman gainera.

Agerre, Lexotiren laguna, joan omen zen poliziaren jefearengana, eta haren medioz libratu omen zen Lexoti.

Paperak zer esaten zuen jakin nahi poliziak eta euskaraz jakin ez. Ura zen komeria!

— *¿Vd. ya entiende vasco?* —galde egin omen zion Agerreri, agertu zenean.

Eta honen erantzuna:

— *No pone nada malo.*

Horrela libratu zen Lexoti egun hartan. Txarlatanak inbiria zeukan nonbait ere, Lexotik jendea bereganatzen zuelako.

Baina Lexotik egin zion bengantza. Urrengo astelehenean, joan eta euntalako pilla saldu omen zuan peri-plazan, arratsaldeko lauretatik aurrera. Baimena ere bazuen orduan Lexotik bertso paperak saltzeko.

Silla bat Auxtiñeneko tabernatik hartu omen zuen, eta haren gainera igo eta kantatu. Konfiantza haundia zuen taberna hontan. Lo ere egin izan zuen bertan.

Astelehenero Tolosan egiten zuen orduan saioa. Aizarnarekin korredore edo sal erosketako terreno billa ibiltzen zen-eta orduan.

Nafarroako herri koxkorretan ere bai, ibili zen bertso paper haiek saltzen. Bost milla bertso paper argitaratu zituen. Bi edo hiru hilabetean denak saldu ere egin zituen.

Santestebaneko ferian izugarrizko pilla saldu zituen behin. Feri hau ostegunarekin egiten zen.

Lesakatik patrika dena duroz betea ekarri zuen beste batean. Joxe Landa Lizarrekoak lagundu omen zion egun hartan bertso paperak saltzen.

Lehenagotik, Mitxelenak kanpotik heldu ziren belarrimotzai jarri zizkien bertsoak papere-tan.

Lexoti eta Mitxelena Zumarragan ibili omen ziren behin bertso paper hauek saltzen. Santa Luziako feri famatua Abenduaren 13an egiten da eta egun hontan zen.

Pezeta batean saltzen zituzten. 1960 baino ondotxo aurreragoko kontua dugu hau.

Oraindik lehenago, Joxe Iriarte *Frantzesa*-k jarri zizkion bertsoak paperean Lexotiri. Esango dugu zergatik.

Uztargille-kin apostua egin omen zuen behin Lexotik Beko Plazan, Oiartzunen.

Uztargille denean ona zen, baina harriarekin behintzat arront ona. Lexoti beti tentatuz ibiltzen zen, harekin desafioa egiteko.

– Probatu behar dit hori nik ba –esaten omen zuen Lexotik.

Zerratu zen ba apostua. Hiru lan klase egin behar ziren: Eun kiloko harria hirurogei aldiz jaso; lau kana erdiko (*45 pulgadas*) lau tronko ebaki; eta lau kilometro korrika.

Lehendabizi harria jaso; Lexoti aurrean jarri

zen. Baina gero aizkoran hasi eta orduan ziren komeriak.

Lexoti atzera eta atzera. Baina bere esparekin ezin ikusi bestea aurretik, eta, bata ebaki baino lehen, bestearekin hasten omen zen.

Tronkoak ebaki gabe han gelditu omen zen Lexoti, kafea eskatzen, harria jasotzean bizkarrara odolduta.

Ez zuten diru apostua, baizik beren artean antolatua. Gastuak ordaindu eta zazpi milla pezeta bientzat gelditu ziren. Sarrera bost duro kobratu zuten. Lagunik haundiena zuen Lexotik *Uztargille*.

Apostu hori zala eta, *Frantzesa*-k bertsoak jarri zizkion Lexotiri: alegia, harek ebakitako tronkoak oiloen kotaren antzera gelditu zirela eta abar.

Lexotik ere bueltan jarri zizkion bertsoak Joxe Mari Iriarte *Frantzesa*-ri (2).

Frantzesa-k saldu egin zituen jarritako bertso paperak. Lexotik ere bai.

Oiartzunen, tabernetan, kantatu gabe saltzen zituzten, pezeta bana. Tabernetan kuadrillak kantatu bai, egiten zituzten; baina berak ez.

(2) Bertso hauek= *Auspoa*, 39.

GAIXORIK

Donostiko sanatorion edo, berak dion beze-la, *sanatorioan* egon zen Lexoti denbora aldi batean.

Petxutik ondo ezik zegoela-edo, Altzibarren lengusu baten etxean zela, bere arreba Pepitak gaizki ikusi zuen, eta horrela egin zituzten dilijentziak.

Abuztuaren 24an, San Bartolome egunarekin ingresatu zuten eta hamalau hilabete egin zituen.

Bi lagun oso jatorrak egin zituen: Paulino Labaien, Amezketakoa, eta bestea Aranaztarra, Juan Telletxea izenez.

Musean egunero illunabarrean, eta eguerdian ere bai batzutan. Hauxe zen beren dibertsioa.

Bakoitzak duro bana jokatzen zuten. Han ere aposturako griña Lexotik.

Lexotik laguna Bergarako Oxintxutar bat izaten zuen askotan mus joko hortan.

Hasieran auldua billatzen omen zuen bere burua oso eta kuxkurtua egoten zen. Baina berehala lotsa galdu.

Medikua oso ona zuen: Don Jose Luis Salinas. Bera ondo gogoratzen da.

Mitxelenak hamabostaldi ro pakete haundi bat bidaltzen omen zion. Diru faltarik ere ez zuen izan.

Bixita asko izaten omen zituen, eta horrela aipatzen ditu: Axaldi, Bordagarai, Aita Zabala, Antonio Arrue...

Euskaltzaindiaren bertsolari-batzordearengandik hiru mila pezeta jaso zituen. Juan Mari Lekuonak esan zioten. Arruek eraman zizkion.

Zortzi hilabete pasa zituen sanatorioan. Pozik haundiena hartu zuen momentua gogoan dauka:

– *Ya puedes ir a trabajar* – Salinas medikuak esan zionean alegia.

Gero beste sei hilabete Ereñozun, bere arreba Pepitaren etxean egin zituen.

Geroztik, buruan min hartuta ere egon zen beste aldi batean Lexoti bere arreba Pepitaren etxean.

Handik hamar bat urtera, hau da 1977 alde-ra, eta hileta batetik Oiartzuna heldu zirela, azidente bat izan zuten.

Hileta hori, Ereñozuko Antonio Mari hamasei seme-alaben aita zenarena. Hamabost bizi dira gaurregun. Antonio Mari, Izen-Eder etxekoa zen.

Illun zegoen. Bederatziak alde izango zen. Txikiardin afaria egitekoak ziren egun hartan. Jaia eta billera izaki, izugarrizko jendetza eta ematen ez. Orduan Ergoina joatea pentsatu zuten, Bidaldera, afaitera alegia.

Añarbekin omen zen motoan. Sabareko aurrean, Oiartzungo Iturriotz hauzoan, kotxe bat argi haundiakin zetorren eta Añarbek frenatu, bistarik gabe gelditu eta. Orduan motoa irixtatu eta biak lurrera.

Eskua autsi zuen Lexotik. Bi aldiz operatu zuten. Hala ere ondo gelditu ez. Berak dionez, indarrrik gabe gelditu zitzaion eskua.



**Iturriotzko festetan. Ezkerretik: Joxe Torrekoa,
Nikolas Etxarte *Trumoa*, Robustiano Urkia
Zarraka eta Lexoti.**

ZENBAIT GERTAERA LEXOTIREN AHOTIK

Maritxon bizi nintzela, mutil koxkorretan, infernuko demonioa baino gaixtoagoa nintzen. Behin, hamasei bat urterekin, kaltea egin nion Pelix Amazkarkoari.

Hau arbol-gizona zen. Arbolak izugarri gus-tatzen. Bide bazter guztietan lizarrak eta zuma-rrak jartzen zituen; eta etxe inguruan gereziak eta mizpirak. Nik harrika txiki arraio egiten niz-kion ahal nituen guztiak.

Ni jotzeko asmotan ibiltzen zen, baina ez ninduen sekulan harrapatu; eta, egun batez, gurdikada bat harri bota zuen gure etxe azpian.

Nik orduan jo ta denak amildu nituen behe-ko sorora; baina, harrapatu ondoren, igo arazi zidan bizkar gainean gurdikada harria.

* * *

Batean, Pazkoazkoa egiteko eguna ailegatu zen eta Don Joxe Luisengana joan nintzen konfesatzera. Galdetu zidan ea meza denak entzun nituen; ta nik ezetz erantzun nion, galduak ere banituela. Orduan, zergatik mezak galdu nituen jakin nahi izan zuen.

Nik uste nuen gezurra esatea libre zela eta zera esan nion: gure etxea urruti zegoela eta, besteak elizara etortzen zirenean, ni han gelditzen nintzela, etxeari guardia egiten.

– Zenbat denborako bidea dago hemendik zure etxeraino? –galdetu zidan apaizak.

– Gutxinez bi ordu, jauna –esan nion.

– A, Lekuona, Lekuona! Orain ere, nere zaharrear, bi orduan baino lehenago joango nindukek hire etxeraino –bota zidan Don Joxe Luisek orduan.

Ez zidan penitentzi haundia eman; pentsatuko zuen neri haundia eman ala txikia eman berdintsu izango zela eta.

* * *

Amaxkarren sagardotegian geunden zenbait lagun, eta batez ere *Katuatarrak*: Bruno eta Joxe Krutz; eta Amaxkar bera.

Esaten zuten arbi hazi ona izaten zela Goiherri aldean. Orduan, bapatean, ea bueltan ekarriko nion hazi hortatik galdetu zidan Amaxkarrak. Baietz esan eta ekarri egin nion.

Hori ikustearekin, Arbideko Xebastianek —*Kuzkurra* deitzen genion—, arbi hazia ekartzea nahi izan zuen.

Baiezkoa eman nion, eta, banindoala, zera ikusi nuen: Arbideko erriberan, baso arbi bat bakarra zegoela eta hura aitzurraz ateratzen.

— Ongi etorri zera!

Nere osabak, berriz, denak beteta zeuzkan. Honek ez zuen erein behar, zeren baso arbia bakarrik etortzen zen. Han bildu eta jarri dut. Ondoren Xebaxtiani eman.

— Zenbat ordaindu behar dizut? —zion Xebastianek.

— Ezer ez. Kafe bat pagatzen badidazu.

Arbia erein zuen eta, handik hogeit bat egunera, hona hemen esan zidana:

— Motell, zer arbia dagoen! Beste kafe bat hartuko duk. Beltx beltza atera zait.

— Bai, bai; hura aterako da bai —nik.

Baina gero, arbia ikusi zuenean, erritan eman zidan.

— Barka ezazu, baina nik ez duk kulparik. Begira iezaiozu nere osabarenari.

Joan eta ikusi zuen; gizona konforme gelditu zen.

* * *

San Fermin bezpera zen eta Ugaldetxora jo nuen. Han afari pixka bat egiten ari nintzela, iji-

toak azaldu *jazbana* joaz; pilarmonika eta danborra alegia. Bueltaka zebiltzan eta buelta ba-koitzean bi sos botzen nien.

— Ea zer matel hezurrekoa eramango duen, berriz azaltzen bada *jazbana* hori —esan nion Luis Katalintxori.

— Hi, jo zak! Kafe bat jokatuko dit!

— Bai? Ni afaldu arte segitzen badu, zer nolako biajea eramango duen! —esan nuen.

Afaldu nuen ba eta berriz etorri zen. Bai? Jotzen dut eta behetik gora, aizeak elurra ateratzen duen bezala, halaxe irten zen.

Gero, ni igesi atera nintzenean, ijito denak hasi zitzaizkidan botila eta kutxilo tiraka. Korrikarako sasoi ona nuen; baina haiek ni ia harapatuan, Txipitoko maldan arto tartera sartu eta eskapo egin nieten.

Manuel Garbunokoarengana abiatu nintzen, alkatea baitzen, eta dena kontatu nion.

— Ez apuratu —esan zidan—. Oraintxe etorri zaizkit Ugaldetxotik zenbait keja: ijitoen astoak kalte haundiak egiten dituztela zelaietan. Bihar goardizibilak bidalduko ditut.

Neri ez zitzaidan ezer gertatu.

* * *

Askotan joaten nintzen Ugaldetxora, Mitxelenarekin bertsoan egitera. Batean, bostak

izango ziren, eta Zulotiarko gaineko aldean euntalako gerezi pilla zegoen, eta sei bat astorekin ijito mordoska bat.

– Kaixo! Jainkoak arratsalde on dizula –esan zidan haietako batek.

– Berdin.

– Zer nolako gerezi ederrak!

– Bai, gureak dira –esan nion nik—. Familia nahiko eskasa gaude biltzeko eta denak hemen-txe ondatuko dira.

– Batzuk jan al ditezke?

– Bai, bai. Jan nai dituzuenak eta bildu eramateko. Abereak hor lotu arboletan.

Zulotiarren bederatzi edo hamar senide baitzeuden, badaezpadan alde egin nuen.

Goiko sagastiko kantoitik begira nengoela, andrea joan zitzaien kargu hartzera, ez zer ari ziren han. Etxeko nagusiaren baimena bazutela eta handik ez zirela joango erantzun zioten emakumeari.

Une hartan, nagusia, Zulotiarko Joxe Mari, sega pikatzen ari zen. Andrea erritan joan zitzaion, ea zer ari zen ijitoei baimena emanaz. Harek ezer jakin ez eta ni goitik parrez.

Handik hamabost bat egunera, Tolosako azokara nindoala, Joxe Mari topatu nuen.

– Kafe bat hartuko duk –esan zidan.

– Bai.

– Gure gereziak gureak zirela uste genuen, baina nagusi berri bat dute noski...

Orain dela zortzi bat urte, egun batean, udara zen, perretxiko denbora, eta Exteban Irunyarrerekoak esan zidan:

— Joango al gaituk perretxikotara, Lexoti?

— Bai —erantzun nion.

Telesforo Iragorri difuntoak eta biek bazkaria eramango zutela, eta Ubidiak tasisa jarriko zuela, eta ni perretxikoak biltzeko, horko berri banekiela eta.

Oialekura joan ginen, eta perretxiko mordoska bat bildu ere bai nik, eta gero bazkaldu genuen. Arratsaldean, Zamoako hiru anaiak eta Bainteta zaharra etorri ziren.

Arguioan jarri ginen Oialekuko zabalean eta Don Drejino medikuak nonbaitik azaldu zen. Nik, batere gogoratu gabe, hau esan nuen:

— Don Drejino mediku ona da. Ni ere pleuresiarekin egondu nintzenean, hogeit hamar joraa benik egin zituen gure etxera, eta ez zidan deus ere kobratu. Amak oilasko paren bat eta arraultze batzuk eramango ziola; baina hartan pasa zen.

— Faktura egiten zertarako molestaturik uen? —esan zidan Extebanek—. Egin edo ez egin hirekin igual igual zuela bazekien eta...

Iturriotzen, Garbunon, Zuberoa hortan,

Uztapide, Mitxelena, alkatea ta ni tokatu giñan, ta musean bixigua jokatu genuen.

Hasi giñan broman ta Uztapidek esan zuen, jokoan ari giñala, haundira:

– Parisen teila aina tanto enbido.

Ta tira... Ta alkateak txikira:

– Gure etxe aurrean dagoen platanoak ostoa aina tanto enbido.

Ta tira... Urrena Mitxelenak:

– Aiako Harriak gramo aina tanto enbido paretara.

Ta tira... Nik ere zerbait esan behar ta, jokorik ez baitzuen inork ere, puntura:

– Gure etxean mila duroko aina tanto enbido.

Ta Uztapidek:

– *Bale, bale!* Ik orduan paso esan nahiko uen ta.

* * *

Urdiña-ri jugada bat egin nahi ziola esan zidan behin Mitxelenak, oso zurra zala eta.

– Latxeko ikatz fabrika hor zegok hiru hila-betez itxita eta ikatzik ateratzerik ez dago. Oraintxe genuke bide egokia *Urdiñari* karta bat egiteko –esan nion.

Zerbait pentsatuko zuela erantzun zidan Mitxelenak, eta berehala Mattioneko Joxe Mari-rengana joan zen karta hori asmatzera.

Laister atera zen, eskutitz horrekin, Oiartzungo kalera. Mutil koxkor beltz bat harrapatu zuen eta honela galdetu zion:

- *Oye: ¿me conoces a mí?*
- *No* –erantzun zion mutikoak.
- *Y ¿le conoces a Urdiña?*
- *Sí.*
- *¿Ya le darás esta carta?*
- *Sí.*
- *Toma un duro.*

Hala, mutikoak eraman zion Urdiñari karta, eta berehala igo zen Oiartzungo kalera.

– Hi, goazemak neri zakuak jasotzen laguntzera –esan zidan Urdiñak.

– Bota ba hogeitamar duro alkandora bat erosteko. Besterik ez dit eta honekin gaizki niok –erantzun nion.

– To orain hamar, eta hogeit emango dizkit bueltan.

Erretik, berriz, seireun pezeta kobratu zion kamioiaren biajea.

Bitartean, Atamitxera joan ginen kafeak hartzera, eta Mitxelenak *Urdiña*-ri esan zion erdibana ekarriko zituztela zakuak. Baina Urdiñak, berak bakarrik erosiko zituela.

– Handik ekartzean, salduko dizkit. Egon hadi lasai! – zion Urdiñak.

Bitartean, nik Petraneko Antonenean alkandora erosi nuen Urdiñaren diruarekin eta Ata-

mitxen kafea hartu. Handik Ereñozura joan gi-
ñen denak, eta bertakoak erantzun:

– Hemen ikatzik ez da.

– Ez dela? Nik karta hemendik hartua dut
ba! –esan zuen Urdiñak—. Eta, gainera, nik le-
tra hau ezagutzen dut!

– Guk ez diogu inori kartarik biali. Nola
hartuko zenuen ba? Erakutsi mesedez karta
hori, nongo seiloa daukan ikusteko.

Seilorik ez baitzeukan, orduantxe konturatu
zen Urdiña adarra jo geniola.



**Bertsolariak Oiartzungo plazan, San Estebanetan,
1956 urtean. Ezkerretik: Mitxelena, Mattin,
Uztapide, Lexoti.**

APOSTUAK

Lexotik lehendabiziko apostua, oraindik oso gaztea zela egin omen zuen. Hemezortzi bat urte izango zituen. Ugaldetxon festak ziren; San Migelak alegia.

Zulotiarko Joxe Luix eta Txalakako Sebastianen aurka, eun kiloko harria hogeia aldiz zeinek lehenago altxa, zen apostua.

Haiek, bien arte baten bizkarrera jaso behar zuten harria; Lexotik, berak bakarrik. Besteak, beraz, lanaren erdia egin zezaketen.

Dirurik ez zuten jokatu. Festa jartzeagatik egin zuten apostua. Gero afariren bat egingo zuten noski festa antolatzaileen kontura. 1943 urtea izango zen, gutxi gora behera.

Lexoti ez da gogoratzen irabazi edo galdu egin zuen apostu hau.

* * *

Lexotik beste batean bazuen apostua Ereñozun egiña. San Antonio egun batean zen. Hango festetan alegia.

Martin Gartziarena Leitzakoa zuen aurka. Honen lana: zortzi tronko ebaki, bakoitzak oina pasea.

Lexotiren lana: eun kiloko harria hirurogei aldiz jasotzea zen.

Lexotik galdu egin zuen. Berrogei ta zortzi aldiz jaso zuen harria. Hamairu bat minutu egin omen zituen, gutxi gora behera, lan hontan.

* * *

Txoritokietako sagardotegian ere egin zuten beste batean apostua, hango zirkuitoan.

Hala deitzen zioten, etxearen jiran, Txoritokieta, Belaztegi eta inguru hoietatik egiten zen bide bati. Sei buelta eman behar zizkioten.

Esnaoko Enrikek bi minuturen bentaja ematen zion Lexotiri. Enrike garai hartan oso korrikalari ona zen, eta gaztea.

Lexotik galdu egin zuen karrera hau. Ordurako utzia zeukan korrika egitea. Hogeitamabi bat urte izango zituen; 1957 urtea, beraz.

Baina hau ez zuten diru apostua. Sagardotegira jendea ekartzeagatik antolatu zuten. Bertako nagusiak, batez ere.

Gero, honek afaria eman zien bioi. Bertako nagusi hori, Amaxkarko Pelixen anaia.

Jende asko izan zen ikusten. Dena bete bete. Ugaldetxotik, batez ere, jende asko etorri zen. Iturriotztik ere bai ugari.

* * *

Lehenagotik, Usabiagarekin, Arlepora joan eta etorri, bazuen Lexotik beste apostua egina. Marka ona egin zuen gainera: hogeita hamahiru minutu ta segundoak.

* * *

Beste batean, Lexoti eta Fermin Bainteketa, Ereñozuko San Antonio festetatik etxera zetozela, Txikierrdin gelditu ziren.

Nonbait gaia atera zen eta apostu hau egitea erabaki zuten: Lexotik baietz bizkar gainean Bainteketa eramane Txikierrditik, Ugaldetxoko Paradan barrena, Iturriotzko Gartxitene tabernaraino, lurrean utzi gabe.

Apostu eguna iritsi zenean, Lexoti Txikierrdira abiatu eta izugarrizko jendetza heldu zen. Berak dionenez, prozesioa bezala zetorren jendea aren atzetik.

Lexotik orduan, hemezortzi urterekin, hirurogei ta sei kilo pisatzen zituen; Bainteketak, berriez, hirurogei ta hemezortzi bat kilo.

Apostu dirua: eun duro.

Lexotik berak esaten duenez, prueba horretarako eta gehiagorako indarra ere ekarri omen zuen; baina laguntzailatzat aukeratu zuen Patxi Iturain ikustearekin, indarrak doblatu egin omen zitzaizkion.

Hemen aipatu behar da apostu moeta hori ez zela berria garai hartako.

Indartsu eta trebe ibiltzen zirenetariko bat, Patxi Iturain Seilpurukoa zen.

Gizona nola eramaten zen esan beharra dago: Gainekoa azpikoaren bizkar gainean eserita, bi anak bizkar alde banatatik aurrera botata, gure txikitako *arre konkon* gisara.

Korrea batzuekin lotzen zituzten biak. Ondo jakin behar zen lotzen. Lexotiri Patxi Iturainek jarri zizkion korreak.

Lexotik eta Baintetak honako hauek zituzten kontra: Mikelentxoneko Antonio, Ansa, Juanenekoa, Olain Berri eta beste batzuk. Hoiek ezezkoa eman zuten; eta Lexoti eta Baintetak, berriz, baiezkoa.

Lexotik apostua irabazi egin zuen, eta Baintetak apostu diru dena berari eman zion.

Dixparatenean hamaiketako ederrarekin ospatu zuten irabazketa hau. Lau edo bost lagun elkartu ziren mahai inguruan. Bai hamaiketako ederra egin ere. Haragi egosia eta abar. Orduan errez eta ugari egiten ez ziren mokaduak alegia...

* * *

Luix Mitxelena Lekungaraikoa, *Kartutxo*, korrikalari on purrakatua zen. Hori hautsiko zuenik, ez omen zegoen inguruan. Egiten zituen apostu denak, bentajarekin eman behar izaten omen zituen.

Behin *Kartutxok* korrika apostu bat egin zuen Maxpurren aurka. Hamar minutuko bentaja eman zion Maxpururi, Altzibartik Zaldinera joan etorrirako. *Kartutxok* marka hau jarri zuen: 46 minuto, 58 segundo, 2 kinto. Juxtu juxtuan, bainan Maxpuruk irabazi zuen apostua.

Amaieran, Lexotiren osaba Joxe Garaiarrek honela esan omen zuen jende artean: berak bazeukala horiek denak baino korrikalari hobea etxean: bere iloba bat, gure Lexoti hain zuzen.

Jendeak apostua hartu zion, eta Altzibartik Zaldinera korrika joan etorria egin behar zuten. Apostu dirua: bi mila pezeta.

Lexotiri dirua Dixparateneko Anttonio eta Auxtin Aranbidetakoak jarri zioten. Kontra, Lexotik berak dion bezala, Altzibar guztia; eta aurkako dirua Kaxkok-eta jarri zuten.

Lexotik, hogeitabost urterekin, irabazi egin zuen apostua: 46 minutu, 21 segundo eta kinto bat izan zan bere denbora. Hogeitamaika segundoz irabazi zuen.

Zaldinen lekuko: Joxe Sein Ottarre.

* * *

1951 urtean, Lexotik, hogeitasei urterekin,

Patxi Usabiaga Azpilikuetauren aurka egin zuen desafioa, Bordatxoko sagardotegian: baietz Bordatxotik Xerraira korrika joan eta etorri oin hutsik. Hala egin zuen Lexotik. Iturriotzen Santio festak ospatzen ziren orduan.

* * *

Irunyarrenean, Altzibarko Estankoan, Lexotik apostua egin zuen, baietz Estankotik Arraskularrera joan eta etorri hamabost minututan.

Faustino Galdosek ezezkoa esan zion. Mitxelena bertsolariak arkume bat omen zeukan apostu honetarako.

Guardiazibilak galerazi zuten apostu hau, Lexotik dionez, aixa irabaziko omen zuen, hamairu minututan buelta egina baitzuen.

* * *

1953 urteko Xanixtabanetan, Lexoti deitu zuten, Billabierko Patxi Makutsoren aurka harrri jasotze apostu bat egiteko. Klaudio aguazilla joan zitzaion billa Lexotiri etxera.

Honen ustez oso errez irabaziko zuen, *Uztargille* laguntzaile zeukalarik.

Usategietak, ordea, Billabierko Patxiku ekarri zuen «punta puntaraino preparatuta», Lexo-

tik dion bezala, eta Patxikuk nahi zuen guzia egin zuen.

Hala eta guztiz ere, ikusi zutenek diotenez, oso borroka haundia eta latza jo omen zuten: Lexotik hiru minututan hemeretzi aldiz jaso zuen harria, eta Patxik hogeitasei aldiz.

Lexotik bigarren saria irabazi zuen, eta Bordaxarkoak hirugarrena.

* * *

Lexotik oilarretarako afizio haundia izan du. Oilarrekin hamaika leku eta plaza jiratu ditu Lexotik, bai Oiartzunen eta bai herritik kanpora ere, eta apostu asko ditu egiñak.

Lehendabiziko oilarra, hogeitabi urtetan, 1947-an bereganatu zuen.

Behin, Donostiara joan eta bertako Joxe Mariko nagusiak apostuko oilar bat oparizat eman omen zion. Lexotik etxera ekarri omen zuen.

Garai hartan Lasaon, Bordazokon eta abar, Maritxo auzoan, oilar zaharrak edukitzen zituzten etxean.

Lexotiren oilarrak, etxetik sumatzen zitue-nean, kukurruka jo ta txiki arraio egiten omen zituen auzoko oilarrak. Bi emakume Lexotiren amarengana joan ziren kejatzerara.

Lexotik, ordea, ez zuen oilarrik ateratzen; eta azkenean amak oilarra akatu zuen.

Markarik haundiena Iturriotzen egin omen zuen Lexotik, berak dion bezala. Santio batzutan izan behar zuen.

Iturriotzen oilar bana zeukaten Zarrakak eta Suantxak.

Lexotik, pikadilloa eta azukre kozkorrak jateko ematen ziola, bazeukan beste oilar bat punta puntaraino preparatua.

Komisioak oilar apostua jarri zuen.

Lexotik esan zuen, bien kontra berea bakarrik botako zuela.

Xarrakak, Joxe Mari Mendiolarengana eramane zuen bere oilarra preparatzera; lepoko ileak kentzera. Hortan artista zen Joxe Mari hori. Seguraski, Gipuzkoako onena izango zen, oilarrak apusturako prestatzen.

Orain hamar bat urte izango dira; 1972 urte ingurua, beraz.

* * *

Lesakako perietan, urtero festa jartzen zuen Lexotik. Joxe Mari Mendiolak eramaten zuen oilarra.

Uztapide edo Mitxelena txandan bertsoan, urte batean bat eta urrengoan bestea.

Latasa sozio izaten zuen Lexotik urtero. Behin apostua muntatu zuten: Korta eta Gartzia-rena, Latasaren aurka. Beste apostu asko ere antolatzen zituzten.

Lesakako urteko feria, Azaroaren azken astean izaten da.

Beste apostu haundi bat feri hauetan antolatu zutena, hau izan zen: Latasa, Arria II eta III-ren aurka. Batek, II-gnak, egurra zutik; besteak, egurra etzanta. Latasak irabazi zuen.

* * *

Ahariarekin, orain lau bat urte hasi zen, 1978 urtean.

Txarondotik ekarri omen zuen aharikoa, ahari txar bat bertan bazegoela esanda.

– Nik edertuko dut –esan zuen Lexotik.

Udazken aldera erosi bost mila pezetan. Kariikako Etxetxon, Ubiriaren tabernan tratua. Txarondoko Xegundo afaltzen zen. Aharia ekarri, pisatu eta berrogeitabi kilo egin zituen.

– Egunetik egunera irabazten eta berehala jarri nuen hirurogeitamar kilotan.

Belarra eta alfalfa ematen omen zion jateko. Azukrea eta intxaurrak ere bai.

Ereñozun, Bidaniar baten aurka, –ahari haundia omen zen hori–, hogeitabi kolpe eman eta kendu egin zituzten. Biak fuerte asi ziren.

Lehendabiziko plazara, Altzibarren, San Pedrotan atera zuen, Irungo *berrenderua* Moisesenaren aurka. Orain ere izango ditu iru edo lau ahari Moises delako horrek. Lexotik irabazi zuen.

Urrengoa, Iturriotzko Santiotan atera zuen, Frantzillako Patxiren suia Martiñenaren kontra. Hemezortzi kolpe bakoitzak eman zituztenean, gelditu egin zen; enpate bukatu zen apostu hau.

– Kendu egin genizkan ahariak.

Ondoren, Urkaben jokatu zuen. Pello Albixturrenaren aurka. Izutua atera omen zen Lexotiren aharia eta ez zuen ezer egin.

– *Ridikuluba* egin zuen –berak esaten du.

Frantxillakoaren kontra bota nahi izan zuen, baina ezin jokatu izan zuen apostu hau. Pentsu gehiegi ematen zion, eta gantzak elkar jo eta hil egin zen ahari gizajoa.

Urte ta erdi edo honela egin zuen Lexotik ahari honekin.

Ereñozura debalde joaten zen ahariarekin, minez egon zenean, Ereñozuko soziedade berria berarekin ondo portatu zelako. Lehen esan dugunez, suskrizio-edo egin ta, dirua eramán zioten minez zegoen lekura.

* * *

Mayorreneko palazioan lanean ari zen behin. Erreti-txikiko Joxe Antonio argina zuen nagusi; Lexoti beraren pioia.

Erretitxikiko Joxe Antoniok apostua bota zion: obratik Adurizeneko kantoira korrika joan. Joan bakarra, etorri gabe. Apostua, duro bat. Eun bat metro luze izango ziren.

Lehendabizi ikuitzen zuenak, irabazia omen zeukan apostua. Azkeneko ikuitzen zuenak, berriz, galdua.

Lexotik, korrika abiatu eta ikuitu du Adurizzeneko kantoia. Bestea, berriz, mugitu ere ez. Geldi geldirikan egon omen zen.

Lexotik aurrena ikuitu, baina atzena ikuitua ere Lexoti izaki, eta apostua berak galdu.

Lexoti, arratsalde osoan, asarre egon omen zen Joxe Antoniorekin.

Baina gero duroa bueltatu egin omen zion Joxe Antoniok. Baita sagardoa pagatu ere Altxibarren illunabarrean, eta pakeak egin.

* * *

Beste behin, Inoxente egun batean, goizean, Altxibarren, Exteban Goienetxeren Irunyarrere tabernara joan zen Lexoti, lengusuarentzat —elbarria bera, Biriaturuko harrobietan min hartua— gosaritako ogiaren bila.

Atean hor ikusten du bosteun pezetako faltsua lurrean, tabernaren erdi erdian.

Altxatikiko Erramun sartu omen zen halako batean, eta *zapla!*, eskua bosteun pezetakoarengana. Extebanek Altza-Txikiri:

— Utzi zak hori pakean, Agerrentzat jarria zegok eta.

Gero Lexoti, ogia eramane etxera eta berriro etorri zen. Luis Agerre ere bai.

Halako batean, Lexoti eta Erramun kanpora begira, eta Exteban barrura sartu omen zen apropos. Eta Luix Agerrekoak patrikara sartu omen du bosteun pezetakoa, tximista baino azkarrago. Extebanek, barrutik aterata:

– Hi, hi! Zer sartu dek? Portuges batzuk izan dituk eta haienak dituk bosteun pezeta hoiek.

Orduan konturatu falsoak zirela eta utzi. Exteban egun guzian hori kontatzen jardun omen zen. Lexotik bere artean esaten zuen:

– Bai? Egin behar zioat ba nik Inoxente Extebani!

Botila bat hartu eta ipurdia zulatu ondoren, joan da Irunyarrenera. Hortarako, Altzibar guzia enteratu omen zen Lexotiren intentzioaz, eta denak baxoerdiak edatera Irunyarrenera. Exteban, denai ezin serbiturik, han ari omen zen.

– Ekatzu botil bat ardo, enbalioa zai daukat eta –esan omen zion Lexotik.

Enbalio hau, Joxe Luixen lengusu propioa, Joxe Garaiar Lexotiren osabaren semea zen.

Bestea hasi omen zen botila betetzen eta, konturatu zeneko, bi litro edo iru ixuriak omen ziren lurrera.

ZENBAIT GERTAERA TA BERTSO LEXOTIRI JASOAK

Pleuresiarekin egon ta ondorenean, tokatu nintzan Oiartzun'en ostatu batean, Castro'nean, eta Don Rejino medikuak esan zidan:

– Lexoti, zer esan dik espezialistak?

– Sendatu naizela. Lanean-da hasi ninteke-la.

– O! Nik sei illabeteen oian egoteko enkar-gu txarra eman niala; baña oraingoa ez dik ederra eman hiri.

Ta orduan Iriarte bertsolariak bertso hau kantatu zidan:

Lexoti onek pasa omen du
oso min-klase luzia,
eoteko martxaz apenas dagon
oaindikan ere asia.
Gandul guzien txapeldun dago,
alper ta erdi pasia,
ta sendatutzen ezta erraza
onek daukan min-klasia.

Erantzun nion:

Neri alperra esanta orrek
ustez egin du graziya,
bera're opiziale ona eztala
oi danak dago ikusiya.
Alperrak miña berekin dula
aiz kontatutzen asiya,
ik ordun miñez pasa bearko duk
ire denbora guziya.

* * *

Gaixotu nintzanean, bertso au gogoratu zitzaidan Donosti'ko hospitalean:

Nere bizitzaz pentsatu eta
egon liteke negarrez,
gauza guziyak esplikatutzen
kantuz ez dirade errez:
aspaldi ontan nola naguen
osasunetik aldrebes,
enfermedade txarran mendian
bizi ezin ta il naiz ez.

* * *

Egun batean, hospitalean nengoela, moja etorri zitzaidan, ta relijioaren gañean jardun izketan, ta bertso hau kantatu nion:

Relijiyua gauza bearra
baida nere iruriko,
nik beran kontra sekulan eztet
aburikan erekiko.
Gaixo nago ta Jainkua goguan
nola eztet idukiko?
Bein sortu niñun mundu ontâ ta
bein ilko bainau betiko.

* * *

Zepai eta biok Oiartzun'go plazan alkarri
kantatuak. Zepai aurrena:

Baserri onin jaiuak ziran,
diru pixka bat zuenak,
denbora aietan jaten zituzten
mukarorik goxuenak.
Kastatu ditu bere diruak,
gañera gurasuenak,
pasa ditula iruritzen zait
egunik erosuenak.

Nere erantzuna:

Beti itz txarrak entzuten ai naz
naiz erri ta naiz erbeste,
eskasaguak izango dira
mundun makiña bat gazte.
Interesez e bajo nagonik,
Zepai, etzazula uste,
nik zazpi bei ta iriak baitut,
zuk bai al'zu orrenbeste?

* * *

Batean, Arragua garbitzera joan eta *Urdiña* topatu nuen. Esan zidan:

– Gaur ere kartoi gutxi bildu dut. Kilo hiru pezetan saldu eta gizonak ez dauka bizitzetik. Eskerrak etxean beiak jetzi eta mantenua ta garbitasuna libre izaten dudana. Bestela, ez dakit zer egin beharko nuen.

Pikoketako Joxe Marik esan zidan:

– Botakiok bertso bat, Lexoti, horren bizi-moduari.

Honela kantatu nion:

Joakin Urdiñak kartoiarekin
pezta ateatzen du dotore,
len *isocarro* alu bat zuen,
gaur kamion onan jabe.
Mantenua ta garbitasuna
etxean berriz debalde,
ontasun onak eskuan eta
ez da konforme alare.

* * *

Nik hogeitun urte nuela, Anbolatz baserriko hiru anaiak bertsoan aritzen ziran: Joxe Luis, Xebastian eta Inazio Labandibar. Komunio-bazkari batean, igande batez, Mitxelena ta denak han aritu ginen, arratsalde osoan. Biharamonean, pelotan ibili ta etxerakoan, Gartxite-neko tabernan sartu nintzen ta Sastiko Perikok esan zidan:

- Atzo Anbolatz'en omen zinaten bertsoan.
– Bai.
– An kantatutakoari ea botzen diozun bertso bat.

Onela kantatu nion:

Anbolatz izena duen etxe bat
Oiartzun'en badago-ta,
bertsoan ein nun komunioko
bazkari batera jonta.
Ni ixildutzen oso zalla zen
orduan artako egonta,
an aitu nintzen Mitxelena ta
iru jaungoikoren kontra.

Oiartzun-go Labandibar askori izengoitiz
Jaungoiko esaten baitzaie.

* * *

Orain urte batzuk, kantatu nuen bertsoa:

Erdi zartu ta gero artu det
kale garbitzeko griña,
txoper Erreti ta lagun Joxe
ain daukat bikote fiña.
Aguazilla ta nik iten degu
berrendero alegiña,
maiso bat degu kuadrillan eta
oixe da Joakin Urdiña.

* * *

Bolara artan geldi gabe nenbillen ni bertso-
tan, ta Mitxelenak au kantatu zidan:

Lexoti onek dailen tokiyan
jartzen du makiña bat lat,
ezautzen eztuen tokiyan kanta
makiña bat gezur galant.
Erririk-erri kantari dabill
lanari utzirik erabat,
ola ibiltzeko laun iten al dek
ijito alargunen bat.

Ta nik buelta:

Ijito alargunen batekin
nik bêr nukela jarduna,
ordun gabetan parranda lasai
ta lotarako eguna.
Illunabarrîn entreatzen badu
eskean billutzen duna,
iretzako ere ez ukek txarra
klasi artako laguna.

* * *

Bertsotan ari giñala, Mitxelena'k esan zidan
andrearekin oso kontentu bizi zela, bizimodua
ondo eramaten zutela. Ta nik:

Lenago ezer ez nekin baño
berak esanta det jakin:
oso kontentu bizitzen dala
etxian andriarekin.

Bêr bezelako bizimodua
ateatzen badu onekin,
millonaio gaurgero egin zan
ezkondu balitz nerekin.

* * *

Kanitxipi Oiartzun'go baserri bat da, eta
ango gizonari ere Kanitxipi esaten diote. Urren-
go Santiotan, Iturriotz'en aritu giñan bertsoan.
Lendabizikoa nik bota nuen:

Lesaka aldeko bi neska gazte
nigana arrimatu zian,
Lexotirekin pasiatzeko
zauden pozaren pozian.
Gero azkenian launtzeko etxera
aitan batek esan zian,
nik buelta iñ arte ik lo egin un
Kanitxipi'ren kotxian.

Mitxelena'k erantzuna:

Ik diokenez, nik lo egin nin
Kanitxipi'ren autuan,
bire zuzenîn ez nebillela
erori niñun kontuan.
Komentziya banin nik ere
nai baldin banuen juan,
baño ezpainun pekatu egin nai
seigarren mandamentuan.

* * *

1978-II-5'ean, omenaldia egin zion Oiar-
tzun'go erriak Mitxelena'ri. Nik bertso au kan-
tatu nuen:

Mitxelena au zer kristau degun
azkar egingo det kanta,
ez dakitenak jakingo dute
dakien batek esanta:
biotza ere emango luke
norbaitek bear izanta,
bertsolai ona, euskaldun fiña,
gizontasunik ez falta,
erri guztiak maite zaitugu
maitagarria zera-ta.

NERE AMARI

1. Nik orain aginduta
egingo det lana,
gogotik kunplituaz
besteak esana;
ni naiz bertsolari bat
formala izana,
eta biotz-biotzez
maite nuen ama.

2. Nik ama jatorrakin
itxian nun parte,
ark neri laguntzeko
bazun borondate;
seme bakarra nintzan,
ni biotzez maite,
errege nintzan ura
bizirik zen arte.

3. Ama jator bat nuen
nik izan munduan,
pena dut egin zala
emendikan juan;
orain aparte dago,
len zegon albuan,
bata bestia ondo
maitatzen genduan.

4. Azken orduan jarri
baitziran zenbait gai,
arek esandakoak
kantatzeko non-nai:
– Arrebarentzat ere
jatorra izan, bai,
danak estimatuaz
formala izan ai.

5. Azken orduan amaz
egiñik tratuak,
garbi aitortu nizkan
nere pekatuak;
gogoan dauzkat ondo
aren konsejuak:
maite ezak Oiartzun
ta Oiartzun'guak.

6. Gaztetan bizi nintzan
markes baten modun,
zer esaten zuen ba
zuek eduki gogun;
ama berdin gabia
mundutikan zan jun,
bizi zan bitartian
nik asko maite nun.

7. Beste bat kantako dut
nai duenak jakin,
konten zen gure ama
famiarekin;
aserrerik etzuen
arek ba gurekin,
gaur biziko nitzake
alako amakin.

8. Ama maite izatia
ez gero arritu,
familiar gu ez gâ
txit gaizki gelditu;
Lexotik borondate
oso onak baitu,
dituen bi arrebak
oso maite ditu.

9. Aman izketan banaiz
ni ere poztuko,
len maite nuen eta
ez aldrebestuko;
mundo ontan izan zan
semian gustoko,
Lexoti amarentzat
bein ez da aztuko.

NERE BIZITZA

1. Jose Krutz guarda maitatu nuen
nik nausi baten antzian,
eta kuidatu egiten niñun
ni seme baten klasian
Garbuno'n asko egoten giñan
lantokitik etortzian,
Lexoti etzan aserretutzen
kintzena kobratutzian.

2. Bi kontratista aundi aiekin
ni asi nitzan tratuan,
Patxi Zerri ta bere laguna
gero nerekin nituan;
ta Oiartzun'go zenbait mutilla
egin zan nerekin juan,
naiko dirua banuen eta
danak ondo pagatuan.

3. Itzai aundi bat laguna nuen,
etzan portatzen itxusi,
kanaletako lan guztia nik
ezin ba adierazi;
sei idi-paren artian bat nik
egiten nuen berezi,
an danak maite nituen baiña
Iyeru nuen nagusi.

4. Bertsotan nago derrepentian
kanalietako saltsan,
itzai aundiak ibilli ziran
Lexotiren esperantzan;
garai aretan dirua eta
talentu pixka bat bazan,
gizon aiek onak ziralako
ni ondo portatzen nintzan.

5. Baso aundi bat guk bagenduen
Naparro aldin artuta,
entenditzeko lan aundiakin
egin genuen tratua;
gu ez giñaden langille txarrak,
bera zan gizon bapua,
baña txit ondo egiten gendun
arek agindutakua.

6. Trunka-zerran aritzeko ere
gu ez giñaden bildurti,
tronkua ere laister lurrera
botatzen genduan beti;
gure zerra gustatzen zitzaion
ordun makiñatxo bati,
pareja txarra etziran ordun
Madarimotx ta Lezoti.

7. Berrobira're egin giñaden
egun batian gu juan,
Madarimotx eta ni lanian
esklabo baten moduan;
etzen nausirik azaltzen eta
gero aldegin genduan,
bañan orduan egin genitun
lanak ditut gaur goguan.

8. Egun batian etorri nitzan
Berrobi'tikan umilla,
naiz izan arren ni indartsua,
jakintsu eta abilla;
batzutan arro ibilli arren
orduan nitzan ixilla,
etxera etorri ta arkitu nuen
nere ama zana illa.

9. Gaur kantako det bear bezela
bertsolarien klasian,
bi gizon aundi goguan ditut
gaur emengo jolasian;
ez det pentsatzen ari naizela
bate denbora pasian,
ta Oiartzun'go plaza artzeko
Erreti zen nagusia.
10. Azken bertso bat kantatutzeko
ez nago ni gaur beldurti,
markes bezela pentsatu gero
bizi dela gaur Lexoti;
nere langintza gustatzen zaio
orain makiñatxo bati,
bear bezela portatu ziñan,
milla zorion, Erreti.
11. Ni Oiartzun'en aldi onetan
bizitzen bainaiz aldrebes,
nere pobreza argi ta garbi
kantatuko det txit errez;
au entzun eta jende guztia
kasik egon leike parrez,
ementxe nago erdi gaixorik
bizi ezin da il nai ez.

ARREBARI

Lexotik aldi bat izan zuen osasunetik gaizki xamar egon zena. Bere arreba Pepitak jaso zuen, eta aren etxean, Ereñozu'ko Iru-bireta ballaran, denbora-aldi luze xamarra egin zuen; amalau illabete-edo. Lexotik asko eskertzen dio bere arrebari mesede ura. Bertso auek, 1982 urteko Martxoaren 25'an paratu zituen, Ergoin'eko Bide-Alde tabernan.

1. Lexoti zarrak kantatuko du
gaurkoan milloi bat egi,
garai aretan gelditu nitzan
ez buru ta ez arpegi;
arreba ta kuñaduak neri
egin ziraten igerri,
ni oso gaizki negoelako
aik mantendu ninduten ni.

2. Jan ta edana nik banuen ba
aoa bete-betian,
etxe artara joatia etzan
bate neretzat kaltian;
dudik ez dago izan naizela
euntalako on suertian,
biyen kontura egon nitzan-da
amalau illabetian.

3. Gu elkarrekin ondo giñala
izandu nuen suerte,
koñadu ta arreba neretzat
izan zuten borondate;
nik ere poza orixe daukat
aiek nindutela maite,
Lexoti etzan etxera etorri
berak nai zuten bitarte.

4. Beste bertso bat kantatuko det
Jaungoikoaren graziko,
argi ta garbi denen aurrian
emen det adieraziko:
izan dedilla nere bizitza
oso denbora luzeko,
koñadua ta arreba ezian
ni ere ez nintzan biziko.

OIARTZUN

1. Nik Oiartzun'i bertsuk jartzia
etzait iruditzen nekez,
eta kantatu egingo ditut
merezi bezela errez;
ez gera bizi erritxo ontan
emen guziyak aldrebes,
Gipuzkoa'ko politena da
nik estimatzen detanez.

2. Ni Oiartzun'en sortu naizela
nago txit pozaren pozez,
zuek gustora egon zaitezte
Lexotikuan jolasez;
erriya onen bazterrin diran
beste denak ba ezer ez,
biyotzez zenbat maitatzen dutan
ezin kantatu mingañez.

tokatzen zaion airia,
erri ona ta semiak ere
oso jatorrak baidia;
guk eramaten dugu gizonak
berak on duen biria,
zergatik ez dugu goratuko
Oiartzun berdin gabia?

4. Lagun maitiak, bertso au ere
egin bear'zute entzun,
erri jator eta aundi onek
bertso bat merezi baitzun;
nik egin nuen garai batian
emendik Ernani'ra jun,
berriro etorri eta maite dut
berdin gabeko Oiartzun.

5. Erri onetan bizi naiz eta
ez daukat bate penikan,
neretzat beintzat iñon ez dago
erri jatorragorikan;
ni Oiartzun'az oroitu gabe
ez det egiten lorikan,
neretzako ez da iñoiz arkitu
txoko politagorikan.

6. Nik Oiartzun'a pozaren pozez
beti eman det pausua,
nik ikusten det gure erria
dala benetan gozua;
antziñatikan bere izena
urre gorritz da jasua,
zerua zer dan ez dakit baña
auxe da paradisua.



Aierdi baserria, Lexotiren bizi-lekua

ANDEREÑO BAT TXURIZ JANTZIA

Dakigunez, gaixorik egon zan Lexoti Donostian, zazpi bat illabetean.

Orduko bertsoak ditu onako auek, bertako gaixozain emakumezko bati jarriak; edo, Lexotik berak esaten duenez, txuriz jantzitako andereño bati.

1. Gaixo-etxera egun triste batez
ni sartu nitzan orduan,
andereño bat txuriz jantziya
jarri zitzaidan albuan.
Geroztik beti gobernatzen nau
errege baten moduan,
pozez txoratzen jarritzen niñun
gelan sartzen zan orduan,
ez nuen uste orren onikan
izaten zanik munduan.

2. Bere lanetan ez da gelditzen
jai t'aste, egun eta gau;
nik esan nuen: Orren pizkorra
non sortua ote degu au?
Ekusitzen det balio dula
askoren batentzako lau,
aldamenian jarritakuan
«Ondo zuaz!» esaten nau,
len oso gaizki nitzan ni baño
iya-iya sendatu nau.
3. «Begoña orrek asko lezake»
esaten ziten lenotik,
ainbeste zanik ikusi gabe
ezin sinixtatuatik.
Garai txarrenin deituta ere
ez da izaten orren paltik,
beñ esan ziran nekiangatik
etzaiuela inportik,
zenbat gabetan lua galtzen dun
gu sendatutziagatik!
4. Piesta ta juergik ez dezu maite,
zuretzako beti aste,
gaba guardiyan pasatu arren
etzaitut ikusten triste.
Burua zuk bai zentzuz betia
izanagatikan gazte,
Begoña, zutaz ni aztutzerik
beñere etzazula uste,
ez daukat itzik zu goratzeko
merezi dezun ainbeste.

5. Iñon batere tatxik gabia,
zu bai neskaxa bikaña,
gorputza dezu berdin gabia,
soñekoz ere apaña.
Nik esan nuen: Zu ain polita
nola zera, alajaña?
Mundu danian andereño bat
ez det maitatzen zu aña,
arnasa dedan arte goguan
izango zaitut, Begoña.
6. Gelara sartzin begiratuta
diruri Ama Berjiña,
pantorrill, gorputz, petxo ta arpegi,
dana molde bat egiña.
Izketan astin bai nabarmena
dala txintxua ta fiña,
leialtasunez ez leike billa
beste bat orren berdiña,
beñ esan niyon: Naiago nuke
zu neretzako baziña!
7. Begoña orrek neri egin dit
konta eziñ ainbat mesere,
merezi duna aitortutzeko
ez det esaten batere.
Beti alegre etorritzen zait,
ez det ekusten asarre,
esaten diyot: Zu ta ni biyok
bizi giñazke dotore.
Ezetzik ez dit esaten baño
ezta baiezkorik ere.

8. Begoña ori nik ondo dakit
andereño on bat dela,
pena bat bakar-bakarra daukat:
netzat izango eztela.
Azkenerako zer îngo deten
itzegingo det nik bêla:
Penaz supritzen nik zertarako
egon biar det onela?
Zurekin bizi ezpaniteke,
zuretzat il nedillela!

ZILLAREZKO EZTAIK

Bertso auek moja batek jarri arazi zizkidan, berak jarriak balira bezela, bere anai bati ez-kondutako zillarrezko eztaietan zoriona emateko nai zituela:

1. Etxe batian jaio giñaden
ala bearrez ni ta zu,
alkar maiteak izan gerala
zedorrek ondo dakizu.
Ni gaur aparte egonagatik
gogoan zaitut beti zu,
ta bertso auek zure arrebak
zuri eskeintzen dizkizu.

2. Eginkizuna degu mundura
etorritako guziyak,
senide maite izan gerade
aita ta amak aziyak.
Guk Jaungoikoa serbitzen degu
eta Berari graziyak,
ezkondutzeko sakramentuak
ez daude galeraziyak.

3. Goizueta'tik ekarri zendun
zure munduko laguna,
anai maitea, biotz-biotzez
guk ere maite deguna.
Bear bezelako emaztea da,
egitazko euskalduna,
etzaizu, Joxe, erraz aztuko
artu zenduan eguna.

4. Egun ospatsu ori izanik
gaur ogei eta bost urte,
zillarrezko eztai-egunak ere
agur egiten dizute.
Iru arreba moja gaudenak
otoitzean dituzute:
lurralde ontako bizimoduan
zorion izan zazute.

ERRIKO DAMAK

1. Erriko etxetik gizon bat juan zait
lengo astean bertso galdez,
dozen erdi bat orri batian
jarriko nitun mesedez,
andereñuak gozatutzeko
mereziya duten bidez.
Erantzun niyon: Saiatuko naiz
egunez ez bada gauez.

2. Erriko damak maitatzen ditut
nere intentziyo fiñez,
naitasun ori baidu Lexotik
barrendik datorren griñez.
Sarritan ez baditut ikusten
ni beti bizi naiz miñez,
biyotzez zenbat maite dituan
ez laike esan mingaiñez.

3. Begira jarri ta ematen dute
baratz bateko loriak,
xintxotasunez konparatzeko
berriz dirade erliak.
Izketan dira urretxindorrak
kantun bezin dotoriak,
erri danetan ez dira sortzen
orrelako landariak.

4. Oiartzun'go erri maitagarriya,
oiek dira landareak,
gabeko intza ta eguzkiya
besterik artu gabeak,
orritz beteak eta kolorez
edozin bañan obeak,
nolako poza ote daukate
baratza oien jabeak!

5. Ekaitz batekiñ ondatutzea
ai zeñen gauza tristea!
Jainkoak daki zenbat kosta din
orrenbeste iristea.
Baldin ta iñor baldin badator
oieri zañak moztea,
zer pena izango duten jabeak
beren eskutik uztea!

6. Orain, neskatxa maitagarriyak,
eiten zaituztet agurtu,
atzerritikan datozenakin
egin zaitezte bildurtu.
Senarretako, al baldin bada,
ez orrelakorik artu,
erriyan aski bagera eta
bertakuak aukeratu.

(*Oyarzun* urtekaria, 1956)



**Lexoti ta Mariano Ostolaiz, Ereñozun, Txirritaren
oroitarrian.**

BERTSO BERRIAK
1977'GN ABUZTUAN
LEZOTI'K JARRIAK

1. Milla ta ondoren bederatzireun
irurogei ta amazapi,
bertso berriak moldatutzia
etzait iruditzen gaizki.
Ez al da beintzat asarretu ta
iñor zapuztuko noski,
naiago nuke taju ona ta
korajia baneukaizki.

2. Anai-arrebak, alaitasunez
jartzera nua bertsuak,
xelebrekeriz asi naizela
esango dute batzuak.
Kaleak txukun dauzkatelako
pozik dabilta jauntxuak,
sarritan berriz pastel eskainka
neskatxak eta atsuak.

3. Ai zeñen gauza atsegiña dan
langillea izatia!
Ni orrengatik izango naute
emen geienak maitia.
Egokituko balitzaidake
beste norabait joatia,
nola neurtu gaur Oiartzun'ek
izango luken kaltia?
4. Nere denboran igaroa naiz
ni otzak eta beruak,
bizimoduak jarri dizkidan
kezkak eta enreduak.
Kaleak garbi dauzka beti prest
Lexoti barrenderuak,
olako ondra ez du izaten
erabat parranderuak.
5. Bat edo bestek esan lezake
parranderua naizela,
zintzarri mingain luzearekin
bekaizkerian bezela.
Berak dauzkaten akats oietaz
konturatu ditezela,
ez al du obe ezagutzia
bakoitzak bere pardela?

6. Lexotikua autan artu ta
edozer gauza kontari,
begira nago ipintzen duten
pikaro oien plantari.
Gure Jainkuak laguntzen badit
osasurekin neri,
oiek lotsatzen ez diran arte
ni ariko naiz kantari.

7. Gañera berriz jarraitzen diot
kale garbitzen lanari,
irabazirik etzaio palta
piñ nabarmentzen danari.
Gauetan ere otoitz egiñaz
gure Birjiña Amari,
ill arteraño eutsi nai diot
euskaldun zarren sonari.

8. Lartaun'en kasta naizela die
larogeigarren belauna,
euskaldunaren arraza garbi,
au da poz ematen duna.
Gaztetasunak aldegin baña
talentuz ez nago juna,
ni Oiartzun'en gertatuko naiz
urrengo alkate jauna.

9. Alkatetzara irixten banaiz
jarriko ditut legiak,
danentzat ez da erreza baña
askorentzako obiak.
Aberatsari lapurtu gabe
pixka bat poztu pobriak,
askatasunez izan ditzala
nork bere eskubidiak.
- 10 Ez pentsa txantxa izango danik
gradu oietan sartzia,
ez da bakarrik basta izaten
izen aundia artzia.
Gauzik onena biar bezala
erria gobernatzia,
legean zuzen erabakita
errespetua jartzia.
- 11 Gogoan artzen badituzute
Joxe Luixen esanak,
lengo batian dei egin ziran
zerutik aitona zanak;
guraso zarrak geienak noski
sinixmentsuak izanak,
ta orain ere obe genduke
ala bagebiltza danak.

12 Neskatz gaztiak, entzun zazute,
auxen da asmo leguna,
oraindik ere nere biotza
ez dago oso illuna.
Lo egiteko bederik ona
izango nuke laguna,
pixkabanaka bidean dator
ni ezkontzeko eguna.

(Oiarzun 1981 urtekaritik)



Lexoti, arri-jasotzalle

NERE BURUARI

1. Agintzalleak etorri zaizkit bertso berriak jartzeko, esanaz oso komeni dala umore ona sortzeko.
Neroni ere zaletan negon pixka bat nabarmentzeko, sekulan ez det bildurrik izan mutilzar bizitutzeko.

2. Gazte denboran izandu nuan aukera eder bikaiñik, neska gazteak neri segika ta ni uxatu eziñik.
Ona zalla ta ez bainuan nai nik andre txuri urdiñik, orain mutilzar bizi naiz baiño batere ez daukat penik.

3. Nere denboran ez det ibilli
zenbaitek ainbeste soñu,
ezkondu gabe gelditutzia
askok izaten du damu.
Ibaira joan da bota ezkeru
jan-gaiarekin bi amu,
arrantzan zalla ez neukake nik
andrerik artu nai banu.
4. Ni Oiartzun'en zar ta gaztiak
ezagutzen naute begiz,
kontzientziko kargarik gabe
itzegin bear det egiz.
Oraindik beintzat ez naiz erori
itxumen txoro geiegiz,
zenbaitek aiña ez det supritzen
emakumien inbiriz.
5. Mundu ontako trapukeriak
nik ez ditut nai ikasi,
len bezelaxe obe det askoz
txintxo ta bakarrik bizi.
Ustez andrea artu ta gero
aldegin igual igesi,
olako gauzik nik dedan ondrak
iñola ez du merezi.

6. Penagarria dala diote
mutil zarraren konduta,
alderdi onik ba ote dago
zenbaitekin ez konduta?
Asko dabilta maitasun gutxi
dutela nabarmenduta,
txarragoaren bearrik ez det
nik lengo ondra kenduta.
7. Dibortzioa modan degula
ateria dago otsa,
gaur mundu ontan ubaldu zaigu
geiegi maitasun otza.
Deabru zarrak irentsia du
kristauen arteko lotsa,
arria baiño gogorrago du
bereizten danak biotza.
8. Ezkontzen danak berekin dauka
arantzazko gurutzia,
zer uste du ba: munduan beti
atsegintsu ibiltzia?
Lautik iruri sartuko zaie
biotzeraiño iltzia,
dibortzioa baiño obia
dute alkar maitatzia.

9. Ezkondutzeko debozioa
banuan gazte-gazterik,
kontzientziak ez dit agintzen
gezurra esaten asterik.
Bolara ontan ez da entzuten
dibortzioa besterik,
bat oso piña ez baldin bada
nik ez det biar trasterik.

10. Jateko aiña irabaziaz
an eta emen lanean,
aurrera ere saiatuko naiz
nunbaite al dedanean.
Mundu ontatik joan bear ori
otsa etortzen danean,
ostatu txiki-txiki bat nai det
zeruan toki onean.

(1978'ko Ekainaren 3'an.)

SAN ESTEBANI BERTSUAK
LEZOTI'K JARRIAK

1. Pozez beterik egon giñezke
oiartzuar geientsuak,
biyotzez maite gaituelako
zaindari errukitsuak.
San Esteban dô zerutik beira
zabaldurikan besuak,
berantzat eztue sinixmenikan
fedegabeko batzuak,
ez ote ditu ganbiatuko
oiek Lexotin bertsuak?

2. Anai-arreba biotzekuak,
nere esanak aditu,
erritarrari kantatu gabe
ni ez niteke gelditu.
Lagun zarrentzat konseju onak
bertsolariyak baditu:
gorroto txarrak erabat utzi,
bear genduke unitu,
gure zaindari San Estebanek
danak zuzenduko gaitu.

3. Gure erriyan gizon zuzena
bizi leiteke ederki,
San Ixtebanen laguntza ona
berekin dula badaki.
Edari ona nunai badauka
bai eta ere jan-toki,
jantziya eta beste gauzatik
badu aukera galanki,
mundu ontako zer suerte dun
emen jaiuak ez daki.

4. Zentzua duna au utzi eta
ez leike juan emendik,
paradisu bat bezela dago
mantxik gabia iñondik.
Jendiak berriz umilla eta
pizkorran pama du lendik,
notizi txarrik Oiartzun'entzat
bein ere ez det entzun nik,
Lartaunek zitun lege ederrak
segitzen dute oraindik.

5. Festak birian datozelako
jendia dago poztua,
ez dakit nola egingo degun
erri guztiyan gustua.
Eder xamarrak izango dila
nik ala daukat juzgua,
lanian dira alkate jaun ta
konzejal-talde prestua,
San Estebanez oroitzuz jardun,
ez dago gutaz aztua.

6. Gauza ederrak ein bear ditugu
emen elkarren urrian,
danan gaiñetik erria dela
gaude aitor biarrian.
Anai bezela ibili gaitezen
gu Oiartzun'go lurrian,
zortzi aldi bat pestatan pasa
alkartasun ederrian,
batak bestea besarkatuta
lanera ondorenian.

1978'gn Maiatzaren 27'an jarriak.
(Oiartzun 1978 urtekaritik)



Lexoti ta Joxe Lizaso bertsolariak

NERE BIZITZAKO EGUN TRISTEENA

1. Oiartzun'go Maimotzekoakin
mendi batian lanian,
ni gutxixio nitzan ta bera
oso zegon indarrian;
telefono batera eramán
ninduten derrigorrian,
egun tristena izan nun ura
nere ama ill zenian.

2. Bakar-bakarrik bizi dek orain
Lexoti bertsolariya,
gizon triste bat bezela nago
Ergoin aldian jarriya;
beste pozarik ez daukat orain:
lagun-arteá aundiya;
baño etxian gurasorik ez,
au da nere komeriya.

3. Bear bezela bizitzen dituk
zenbait markes eta duke,
aik bezelaxe ibillitzeko
deretxo berdiña guk e;
nik bat biotzez maite dutela
garbi aitortu nai nuke,
ni ere markes izan nindeke
arreba etxean banuke.

4. Lizartza'n lanik ari nintzala
dei bat zan izugarriya,
ama illa zela jakindu nuen
telefonotik berriya.
Ori ez al da seme batentzat
oso trantze txar aundiya?
Etxera etorri ta ama illa,
ez al da penagarriya?

5. Neri etzidan garai artako
bizitzak pozik ematen,
basuan ere an asi nitzan
ordun autsi edo eten;
eskaxa nitzan eta pobria
baña aurrera ni irten,
ama emendik joan zan baña
arrebak artu ninduten.

6. Bizimoduan jarraituzeko
senidearen onduan
guraso orde z lagun oberik
ez da izango munduan;
laguntza beti eskutan daukat
nik bear dedan orduan,
probatu gabe ez da jakiten
amak zer balio duan.

(1981'eko Abenduaren 14'an jarriak).



Lexotiren ama

NERE LENGUSUARI

Lexoti, bein etxerik gabe edo orrela gelditu zen. Berak orrela dio beintzat. Egun batetik bestera, etxetik kanpora bialdu nausiak; errentan ere eman nai ez. Egun berean lengusu bat, enbajadorea, etorri zitzaion etxera, eta berak konpondu asuntoa. Egundaiñoko poza artu zuan Lexotik.

1. Nik lengusu bat daukat Madrillen
aspalditikan dagona,
ark niganako kariñoik ez du
mundu ontatikan jona;
Lexoti dauka berrenderua,
asko estimatzen duna,
pobre bateri lagundutzeko
orixe degu gizona.

2. Aizu, Igone berdin gabea,
eiten nauzu zenbait grazi,
dudik ez dago zure etxian
ni orain naizela bizi;
ta nai baduzu egingo nazu
zeure etxian ikusi:
komeni bada etorri zaite
zure gizon eta guzi.

3. Aizu, Igone berdin gabea,
esango dizut lau egi,
arpegi ona guk Oiartzun'en
egingo dizugu jarri;
bizimodua ateratzen e
gu ez gaude oso larri,
enbajadore duzu gizona,
nai zutenian etorri.

4. Nere lengusu enbajadore
ez da izandu ergela,
berak esandako itzak ere
kantako ditut berela;
nik badakit ba Madrid'etikan
gauza bat etorri zela,
arek Lexoti maitatzen zuen
bere semia bezela.

(1981-eko Abenduaren 11'an)

GOIZUETA'KO MARITXURI

Bertso auek Lexotik, 1982'garren urteko Martxoaren 15'an jarri zituen, Oiartzun'go Ergoin'en, Bide-alde tabernan.

Liburu ontan ikusia dugu, Lexoti Goizue-ta'n ibilli zela, bere osabaren idi-parearekin, bertako eleiza, pelota-leku berria eta beste zenbait etxe ta lekutarako bear ziran puska, zura, zugaitz eta onelako gauzen karraioak egiten.

Egun aietan, dakigunez, Goizueta'ko *Mari-txu* tabernan egoten zen apopilo.

Nonbait ere oso ondo gobernatzen zuten gure Lexoti taberna-ostatu ortan; eta dudarik ez dago bertso auek ango etxeko andreari biotz-biotzez jarri zizkiola.

1. Ni Goizueta'n azaldu nitzan
gizon eskaxan moduan,
osaba zanan idiyarekin
egun batez nitzan juan;
ta antxe bildu egin nitzan ni
tabernaren inguruan,
Juanaeneko Maritxu ere
nik asko maitatzen nuan.

2. Etxe aretan ni apopilo,
batere ez daukat penik,
seme bezela artu niñuen
egun batian joanik;
ni mantentzeko etzuen falta
abildade ta kelmenik
neri're etzait iruditutzen
nere ama ez nuenik.

3. Egun batian aldegitoko
izandu nuen suertia,
ark esan zidan: «Etxian bada
gizon on baten faltia;
zuk emendikan aldegitia
da neretzako kaltia,
ta berriz ere noiznai etorri,
zabalik dago atia».

4. Andre jatorra ona zan ura
txit Lexotintzako jaio,
beti lanian ibillitzen zan
kurajetsu eta iaio;
neri kalterik etzidan egin
jaio eta oraindaño,
mantenu ona ematen ziran,
gutxi kobratzen zun baño.

5. Gizona ondo mantendutzeko
bazun abilidadia,
borondateko andria zala,
nik esango det neria;
egun batean ikasi nuen
etxe artako bidia,
nik naiago nuke Goizueta'n
Maritxu asko balia.

6. Maritxu ona nik maitatzen dut
gutzizko borondatian,
egun batian ezagututa
ez da neretzat kaltian;
mundu onetan izango gera
nork daki zenbat urtian,
ni zuretzako ez naiz aztuko
arnasa detan artian.



Lexoti, bere gaurko langintzan

GAZTE DENBORAKO ANDREGAI BATI

(Doñua: «Ai gure antziñako...»)

Bertso auek, gau batean, etxeko sukaldean, lotarako gogo askorik gabe, gazte denborako andregai batentzat jarri ta idatzi omen zituen Lexotik.

1. Amerikâ jua ziñan
neskatxa alaia
ta lanean saia,
gaztea nintzaneko
nere andregai.
Aruntz artu zenduan
zerbaiten usaia,
pobre danon antzera
aberastu naia,
ogei urte egin da
zera etorria.

2. Bakarrik juañ ziñan
ni emen utzita,
tratuak autsita,
ta orain egin dezu
onera bixita,
alaja garixtiak
soñean jantzita;
trixte gelditu zera
zearo etsita,
ni kale-garbitzalle
emen ikusita.

3. Praka zarrak jantzita
aruntza ta onuntza
ementxe gabiltza,
esku batean pala
bestean erratza,
batek karruai tira
ta besteak bultza,
batzuetan betea,
bestietan utsa;
zu usai goxogoak
boteaz zabiltza.

4. - Pentsamentuak dauzkat
jarriak zurekin,
nai badezu jakin:
Lexoti, ezkondu nai
al dezu zurekin?
Amerikan bizi nai
diru askorekin,
palazio batean
zazpi neskamekin:
antxen biziko gera
biok alkarrekin.

5. Ta gañera baditut
lurralde aundiak,
zelai ta mendiak,
millaka abereak
bei eta ardiak;
beste milloi batzuak
Bankuan gordiak,
ezkondutzen bazera
zuretzat erdiak;
ondo bizi besterik
ez daukagu biak.

6. Gure eskutan daude
alderdi geienak:
hotelik onenak
jendia serbitzeko
jarrita daudenak,
lujoko abioiak
kotxe eta trenak,
gizonak ikusteko
ikuskitzen denak,
mundu guzian diran
gauzik ederrenak.

7. - Jaunari esker iñun
ez daukat zorrikan,
ez fama txarrikan,
ez det artu nai zure
diru ederrikan;
kontu oiekin zator
alper-alperrikan,
orain ez det batere
zure bearrikan,
nik naiago det bizi
bakar-bakarrikan.

8. Itxura danez zera
neretzat kupitu,
biotza ukitu,
bañan lenago zuzen
etzendun jokatu.
Amodio fiñ ura
zidazun ukatu,
eta besterik gabe
genduan bukatu;
ta orain alkartzea
ez al da pekatu?
9. Ni Oiartzun'en nabil
kaleak garbitzen
erria serbitzen;
onela ikusi ta
zaude errukitzen.
Bañan ezkontze ori
ez dizut agintzen,
leku obeagorik
ez baidet arkitzen;
emen gutxikin jakin
bear da bizitzen.
10. Lau tiro eman-eta
makiña bat lani,
ez ordea oni,
geiegi egitia
ez baita komeni.
Askotan alkatiak
naiz eman armoni,
gure sorterri ontan
ondo bizi naiz ni;
nigatik libre zera,
Joxepa Anttoni.

(1978'ko Ekainaren 5'ean.)

ALTZIBAR'TIK ZALDIÑ'ERA

Bein batean, Lexotik apostua egin zuen Al-
tzibar'tik Zaldiñ'era joan eta etorri korrika. Bai
bertso auk jarri ere:

1. Lagun Mariano, asiak gaituk
emanian ta artuan,
ez gero pentsa Lezoti zarra
dagonikan pekatuan;
nik Zaldiñ'ara egin nuen ba
orduan korrika juan,
garai artean Luixen gisako
Lexotik lau ber zituan.
2. Luix Lekungarai desgraziaren
moduan ez det utziko,
mutil jatorra ta aundi zela
Lexotiren iritziko;
bañan nik ere sasoia nuen,
bestela ez nitzan jauziko,
beste amar bat etorrita're
ni ez ninduten autsiko.

3. Luix Mitxelena ain pizkor zegon,
gaztea eta trebea,
gorputz txikia, ankak ariñak,
azkar igaroz bidea;
bañan Lexoti gordian zegon
iñon bildurrik gabea,
egun aretan ni izan nitzan
apustuaren jabea.

4. Apostu-gauza ez da errenta,
galtzekoa da erdiya,
ustez seguru egonagatik
azaldu leike berriya;
naiz egon arren indartsu eta
orretarako jarriya,
usterik ez dan lekutik nola
saltako zaion erbiya.

TXIKIERDI'TIK GARTXITENE'RA

1. Lagun zar maite, ni ariko naiz
emanaz eta artuan,
apostu-kontun ere orduan
ibiltzen nintzan tratuan;
indarrez ere eskapo ez nintzan
garai aretan ni juan,
emen ziraden on-ustekoak
danak apurtzen nituan.

2. Zirikaldiak beti baziran
bañan apostu-antzera,
batzuek aixa irabazi ta
beste batzuek galtzera;
pentsamentu bat beti barruan
al zan guzia kentzera,
sasoia zegon garai aretan
ez nun egiten atzera.

3. Desafio bat bialdu zuten
egun batian nigana:
bizkar gañian ezetz ekarri
onuntz Fermin Mitxelena;
Txikierdi'tik artu bear nun,
Gartxitene'ko taberna,
baietz esanda egingo zala
alík-eta azkarrena.

4. Bizkar gañean jarri ziraten
Txikierdi'ko atarian,
ta lurraríkan ikutu gabe
ekarri bear aidian;
apostu dana galdua zegon
jetxi ezkeró bidian,
iñork usterik etzuen baña
indarra zan gaienian.

5. Iritxi giñan Iturriotz'a
ta neukan pixua utzi,
txutíkan errez egoten nítzan,
ez nion iñori eutsi;
gañean zanak ateratzen zun
nik betíkan ainbat antsi,
Lexotik zenbat talentu daukan
orra ederki erakutsi.

6. Nere berria ikasi zuten
nengoela nabarmena,
berriketako miñikan gabe
indarreko gorputz dena;
zirikaldiak aldez aurretik
etorrigatik nigana,
ondorenetik etzegon geio,
ortan bukatu zan dena.



Lexoti, ollar-jokoan

GARBUNO

Lexotik artu-eman aundiak izan ditu beti Iturriotz'ko Garbunokoekin. Ango Manuel Arbelaitz lagun aundia zuen. Manuel alkate zegoe-larik, milla disputa, apostu, txapelketa eta abar egosi ziren bien arteko eltzean. Gero ere, denbo-ra joanda, Lexotik ez du iñoiz ere aztu garai ar-tako Garbuno. Berak dion bezela, Pagua (Pa-goaga) eta Garbuno Oiartzun'go etxerik zaar-re-nak izango dira. Bertso auk, 1981'eko Aben-duan jarri zituen.

1. Nagon tokitik ikusitzen dut
Garbuno aundiya bertan,
bertso batzuek kantako ditut
faltatu gabe ezertan;
garai batian ezagutu nun
eta ez nago penetan,
nik Garbunoa ezagutu nun
ogei ta sei bat urtetan.

2. Elkarrentzako zertako izan
gorroto edo errena?
Orain lareun bat urteko gizon
batzuentzat dago pena.
Nik emango dut etxe batentzat
tokatzen dan aitormena:
dudarik ez da erri denian
Garbuno dela zarrena.

3. Beste bateri emango diot
tokatzen zaion gradua,
dudarik gabe Ergoin'en dago
izugarri ondradua;
lenago ere fama bazuen,
gaur ez daduka galdua,
nere iritziz Pagua dugu
Garbunoren parekua.

4. Nere ustez ba bertso-lanian
izan det abildadia,
nai detan guzi azaldu det nik
daukaten fakultadia;
arriturikan utzi izan det
begira dagon jendia,
gora pixka bat altxa nai nuke
Garbuno paregabia.

BRUNO NERE LAGUN ZENARI

Bertso aukeratuak Lexotik 1982'garren urteko Martxoan jarri zituen.

Oso laguna zuen gizon bati eskeintzen dizkio: Bruno, Mariano Ostolaitz bertsolariaren anai zenari.

Brunorekin asko ibiltzen zen Lexoti batera eta bestera, sagardotegi guzietan zear, pestetan, ferietan, apustueta eta orrela.

Berak dionez, lagunik onena omen zuen.

1. Lagun jator bat nik maite nuen
nere buruen moduan,
sagardotegi askotâ ere
egiten giñaden jua:
Bruno laguna pozikan beti
zebillen nere onduan,
diru askorik ez gendun baño
alkar maitatzen genduan.

2. Bruno mundutik juan zan eta
neri ezin aztu penik,
ez det esango gizon on arek
falta zuela kelmenik;
bata besteai borondatia
aundia gendun iñondik,
garai batian ez nun pentsatzen
nere anaia etzanik.

3. Ni Brunorekin juntatu eta
izaten nintzan poztua,
gu bikotea bein ere ez giñan
izaten aldrebestua;
sagardotegin juntatu eta
bizitzan pena aztua,
biotz-biotzez maitatzen nuen
ez baitzan gizon gaixtua.

4. Bruno aundiak egin zuen ba
zeru aldera bixita,
mundu ontako bizimoduaz
nola baitzegon etsita;
ni orain ez naiz tristetasunan
derrepentian asita,
gizarajoak aldegin zuen
ni bakarrikan utzita.

5. Ura zan baño gizon oberik
neretzat etzan munduan,
une ederrak pasa genitun,
oraindik daude goguan;
sagardotegin biok alkartuz
aritzen giñan orduan,
beste gauzarik ez det desio:
gerta dedilla zeruan.
6. Bruno laguna jatorra zan da
etzan nere kalterako,
sagardotegin banengoen ni
ura etzan aterako;
baso bat beintzat emango ziran
atetikan sartzerako,
zeruan leku egin dezala
ni aruntz joaterako.



Lexoti, bere aariarekin

NERE MUNDUKO BIZIMODUA

1. Nik Oiartzun'en jarri izan det
makiñatxo bat enrero,
erriya gutxi maite detanik
ez gero iñork espero;
damu izatia alperrikan da
denbora joan eta gero,
ministro bear nukena nabil
Oiartzun'en berrendero.
2. Oinbeste nola bajatu naizen
au da gauza arritzia,
batere pentsatzen ez nuela
allegatu zait zartzia;
sekula ez naiz arrua izan
baña au da umiltzia,
nere munduko bizimodua
nik eman dut aditzia.

3. Ez naiz aritu gaurkoan beintzat
emen izketan afanaz,
triste xamarra bizi naiz eta
egi batzuek esanaz;
ez naiz batere aberastutzen
berrenderotzako lanaz,
ni Aierdi'ko palaziyuan
bakar-bakarrik bizi naz.

4. Orain artean ondo izan naiz,
beti izan det kelmena,
ondorengorik ez dala izango
orixe dadukat pena;
bati baditut laguntzalleak
badaukat itxaropena,
ill arte nonbait biziko al naiz,
besteak egin zutena.

*(1981'eko Abenduaren 11'an,
Bide-alde tabernan.)*

ZUZENTASUNA

1. Bertsotan lanin asi naiz eta
artu ber pazientziya,
emen zenbaitek egiten dute
berak nai duten guziya;
gaizki dabillenari kentzia
duzu nere iritziya,
emen batzuek bere eskutikan
artzen ditek justiziya.
2. Zenbat litxir ta ajol gabiak
bizitzen dituk dotore,
nai duten dena egiten ditek
edozeintara junta're;
kostunbre txarra oiek uztia
egin zatela mesede,
Euskalerrian bizi giñezke
orrelakorikan gabe.

3. Garai batian bizitzen giñan
emen pozaren pozian,
euskaldun onak bear bezela
aitzen giñan jolasian;
orain aldrebes ari gerade
oso denbora luzian,
nora arraio joango gera
errespetorik ezian?

4. Pentsatutzen det asko gaudela
memoritikan aulduak,
demoniñuak bururatuta
alkarregana bilduak;
gurasoaren itza entzun nai ez,
zikinkeriyai elduak,
ezertarako ez du balio
errespetoa galduak.

*(1981'eko abenduan jarriak,
Tolare tabernan.)*

JAUNGOIKOA TA FEDIA

1. Bear bezela arrazoi batzuk
esango ditu Lexotik,
aldamenekok gaizki artuta
neri ez bate inportik;
dotriña ondo ikasi nula
zuek dakizute lenotik,
nik Jaungoikoa estimatzen det
gauza guzien gaiñetik.

2. Beste bertso bat kantatutzeko
nik badaukat talentua,
relijiyua maite dut eta
orain eingo det ejua;
denan gaiñetik zeruan degu
maisua bat jarritakua,
ni ari naiz ba esplikatutzen
ark erakutsitakua.

3. Nondik ez dakit aterako'uten
bertsuetako bidia,
bata bestia estimatuaz
bizi gindezke jendia;
aserre xamar batzuk gabilza,
ori ez da ba obia,
nere aldetik maitatzen ditut
Jaungoikoa ta fedia.

4. Besteak bezela ibiltzeko
deretxua degu guk'e,
Jaungoikuaren izen aundiya
beintzat ez liteke uke;
fedia ere nere iritziz
asko maitatu nai nuke,
gu ez giñake gaizki izango
ori egin bagenduke.

5. Ni erdi triste bizi naizela
munduan badaukat pena,
zenbait ainbeste izaterako
ez baidet izan kelmena;
talentu gutxi dadukatela
ori gauza nabarmena,
baiño ez da gaizki ibilliko
fede pixka bat duena.

6. Bertso au ere kantatuzeko
izango det nik modua,
lagun jatorrak, entzun zazute
Lexotik esandakua:
fedetik eta gizontasundik
badet talentu naikua,
baño kalkulatzan det neretzat
lendabiziko Jainkua.



Lexoti, bere etxe ondoan

ZENBAIT BERTSO

Oiartzun'en, 1973-XI-10-an, Uztapideren omenaldian kantatuak:

Besarkada bat, anai-arrebak,
lanari nai diot jardun,
egun aundi bat iritxi dala
bertan ez al da ezagun?
Oiartzun ontâ bildu gerade
gu onenbeste euskaldun,
Uztapideren omenaldi au
ondo pasatu dezagun.

Bere garaian kantatutzeko
bazun abilidadia,
danak dakigu ura izan dala
gu danak bañan obia.
Bertsuai arek jarri baitzion
tokatzen zaion biria,
obe genuke Euskalerrian
Uztapide asko balia.

* * *

Uztapiderentzat bertso au ere, Ergoin'go *Bidalde* tabernan 1981-IV-25'an egin zitzaion omenaldirako bidalia:

Danak dakigu gure Manuel
gizon jator on bat dela,
gañontzekuan ezin maitatu
egin genezake onela.
Kantako dutan bertso au ez pentsa
izango denik ergela,
guk Oiartzun'en oi maite degu
bertan jaioa bezela.

* * *

1981'an, Errenteri'ko Pontika ballarako festetan, Lexotik kantatu zuan agurra:

Gaur Pontika'n jende euskalduna
dago bertsoaren gosez,
oi jakiñikan ni kantatzera
etorri pozaren pozez.
Askotan aotan ibiltzen gera
bañan gaur ainbat inoiz ez,
lendabiziko, anai-arrebak,
agur danori biotzez.

* * *

Oiartzun'go erriari:

Oiartzun maite, kondairak badu
guri zerbait esan naia,
izan zenduen lurrez aberats
ibillitako garaia.
Zureak Ondarrabi ta Irun,
Lezo bezela Pasaia,
orain estua etzera baña
orduan ziñan lasaia.

* * *

Juanito Oñatibia zanari buruz bi bertso
auek, *Oiartzun 1979* urtekaritik artuak:

Gizon jator bat faltatu zaigu
danak genuena maita,
olako batek alde egitia
penagarrizkoa baita;
mundu ontatik betiko joan da
Jaungoikuak ala naita,
nik pensatzen den faltatu dela
euskaltzalearen aita.

Gizon langille pizkor bat zala
orixe nik banekiyen,
euskeran alde asko egin du,
ori ez al da nabarmen?
Gure Jainkoak eraman digu
erriyak nai zun baño len,
luzaroako utsune aundiya
utzi digu Oiartzun'en.

Ernani'ko Inazio Setien'i eskeñiak onako
auek:

Zinkoene'ko Inaxioari
nago itzegin biarra,
ez da bertako seme ain zuzen
baño bai ernaniarra.
Sal-erosketan balio du ta
atera dio kiarra,
mats gozuaeren mama salduaz
artua dauka indarra.

Aspalditxuan ezagutzen det
nik Inaxio Setien,
lengo batian bere lagunei
gauza bat entzuten nien:
guk bere ondra jarri nai degu
apalian txukun goien,
gure sendiko bat izan ezik
ori maite degu geien.

Tratante ere ibilli ziñan,
ez dezu etxerik galdu;
joanda Kastilla'n beiak erosi
ekarri ta emen saldu.
Mesede asko iñori egin
ta bera ondo azaldu,
lagun urkoa maite duanak
zerbait merezi ez al du?

* * *

Bere buruari:

Egi jator bat kantatzeko're
bat ere ez neok beldurti,
gazte denboran dirua ere
ibiltzen nian urruti.

Iñoren laguntzarik ez nun ta
pobretasuna bai beti,
amar peztaren jabe gabe're
ibilli izan dek Lexoti.

* * *

Mitxelena bertsolariari:

Ai, Joxe Joakin, jaio ta biok
lagunak izan gaituk beti,
bañan bertsotan kantatutzeko
iñoiz gutxitan beldurti.

Gure bertsoa gusta izan zaio.
motell, amakintxo bati,
i Oiartzun'en onena intzen
ez balitz jaio Lexoti.

* * *

Bertso auk, Goizueta'ko Andres Narbarte
bertsolaria zanaren aotik jaso genituan.

Narbarte'k etxean pareta berriren bat egiña
zuan. Bañan gau batean pareta erori egin zan.

Baita Narbarte ere arekin batera oe ta guzi. Eskua autsi zuan, eta bekaiña idiki.

Lexoti, berriz, bere etxeak su artu ta erre, ta arrebarenean bizi zan.

Biak ere bazekiten alkarren berri. Urrengo Goizueta'ko festetara Lexoti eraman zuten, Narbarte'rekin bertsoan egiteko. Ari-ari zirala, Lexotik au kantatu zuan:

Oraingo ontan txorakeritan
ez naiz egingo ni asi,
i bezin ume itxusirikan
sekula ez diat ikusi.
Goizeko bosterdietan ustez
engon eure etxeko nausi,
beko erreka or jo omen dek
ere pareta ta guzi.

Ta Narbarte'k:

Egia da bai erori zala
nere etxeko pareta,
eskerrak diru pixkat banula
maleta zarran gordeta.
Ostera zutik jarri nun bañan
galanki xamar kosteta,
Lexoti berriz kanpuan dabil
len zuan zarra erreta.

Bein, Goizueta'ko festetara joan zan Lexoti. Egun berean etortzeko asmoak omen zituan, bañan lagunekin-edo, an pasatzen ditu bi egun; eta irugarrenean, goizean, Goizueta'ko *ko-rreoan* etortzen da etxera.

Bitartean, bere koñadu bat, Juanito *Altxo*'k galdetzen du:

– Nun dek Lexoti?

Erantzuten diote:

– Goizueta alde ortan ibilli bear dik! Ez dek aste guztian etorriko ura.

Bañan orra Lexoti etorri. Eguerdi arte lo egiten du eta arratsaldean *Iru-Bide* tabernara joaten da. Eta Juanito *Altxo*'k puntua jartzen dio:

Lengo egun oietan
non zerade izan?

Ta Lexotik:

- Farrandan ibilli naiz
askotako gisan,
batzuetan tabernan
besteetan plazan,
irugarren goizean
etxeratu nintzan.

Juanito *Altzo* orrek berriz ere:

Zure arreba Pepitak
zer zion orduan?

Lexotik:

Ondo artu nindula
dadukat goguan;
itzegiñik goxoki
aingerun moduan,
beñ e baiño obeto
gosaldu genduan.

BIRIATU'N (1971-XI-14)

Biriatu'n, 1971 urteko azaroaren 14'an, Mattin zana eta Lexoti ziran bertso kantatzen, goizetik joanda. Bañan etziran toki batean jardun; tabernaz-taberna ibilli ziran. Nunbait ere an oitura ori izaki.

Ala ere, egun artako bertsoak manetofonoz jaso ziran, eta ona orain emen Lexotik orduan kantatutako banaka batzuk.

Lendabizikoa, Mattini erantzuna emanaz:

Jator izketan ai dan gizonak
eztu merezi kartzela,
zuk badakizu ni jaiotzetik
pobre samarra naizela.
Bañon bertsuak diradelako
ni bizitzen naiz onela,
ni Oiartzun'en or ibiltzen naz
markes- seme bat bezela.

Bigarrena, Biriatu'ko erriaren gorlapenez
kantatu zuan:

Emen jendea ikusitzen det
leiala eta noblia,
beren bizitza ateratzeko
baute abilidadia.
Pozaren pozez ni etortzen nak,
nik aitortzen det neria.
naiago nuke Biriatu ontan
eunero pestak balia.

Mattin bereala asi zitzaion *atakatzen*, berak
esaten zuanez. «Lana etzuela maite» bota zion
lenengo tiroa. Ta Lexotik:

Martin onek ba desinboluan
ateratzen du zenbat itz,
jaiotzetikan orain bitarte
lanai utzi gabe gabiltz.
Españiyan ta Frantzi aldian
lana iten det nik aunitz,
gaur e ez nitzan emen ariko
txit alperra izan banitz.

Mattinen urrengo ziria:

langile hoberena baita
mahain onean jarrita.

Lexotik erantzuna:

Martin maitea, Lexotin bizkar
zertan iten ai zâ parra?
Jainkuk emana lan egiteko
nik izandu det indarra.
Nekazari ta arrobitan e
iten nuen barra-barra,
alper izatia nik, Martin, daukat
fama txar ori bakarra.

Urrengo saio batean, eta len esan bezela beste taberna batean, Mattinek ango serbitzaria eskeñi zion Lexotiri andregaitzat. Baita neska jakiniñaren gañean jarri ere:

senar jatorrik nahi badezu
hementxe dago Lexoti.

Ta onek:

Maitako zaitut, eder-polita,
nere buruen antzian,
pozez txoratzen geatuko zera
bertsu auxen aditzian:
nik eunez lana ein bërko'ut baño
biok lo in arratsian,
ai zer bizitza pasako degun
alkarregana biltzian!

Mattinek:

diru gutxi izana gatik
borondatia asko du.

Lexotik:

Orren kontesta eman leiteke
berrogei milla moduta,
Martin bertsoaz berdinduko det
dana merezia du-ta.
Lengo bertsuan oaintxen eman nau
oso pobrian konduta,
nik dirua zertan, neskaxa orrek
biontzat aña badu-ta?

Mattinek:

Neska gaztia, izaten bauzu
Lexoti biotzez maitia,
senar bat sarri izango dezu
frango ona ta gaztia.
Pena litake okasionia
etorri eta uztia,
diru askorik eztauka bañan
badauka borondatia.

Lexotik:

Iruritzen zat emen ezkontza
zerra leitekela errez,
berak e ez dio ezetzerikan,
dago alegre ta parrez.
Ez al zerade bate gustatzen
neure izketa ederrez?
Danan aurrian esan kidazu
konforme zeran edo ez.

Lexotiren urrengo bertsoa:

Neska jator bat Frantzi aldian
ezagutu det suertez,
egun alaia Jainkuk eman dit
juan den aspaldiko partez.
Asperturikan nola bainagon
solterotako izatez,
zein zân etzaitut ezagututzen,
onera etorri zaitez.

Ezagutu al izateko, nabarmenkeririk gabeko
modu bat erakusten zion Mattinek bere urrengo
bertsoan:

bate berari beiratu gabe
bazterrea bota begia.

Ta Lexotik:

Nik ez det ondo ikusi eta,
Martin, artu pazientzi;
bêr degun dana ekarri digu,
ez du borondate gutxi.
Biok bizitzen jarri giñezke
seuru biar edo etzi,
ezkontza ori zerratzen bada
juango al zera aitautxi?

Urrena Mattinek:

Gisa hortako okasioniak
eztira gertatzen usu,
jakin balu hunek galdetuko
zituen aistian bi musu.
Hau ezkontzeko prest dagoela
egondu zaite deskantsu,
gero ere hunek janen du bai
zuk zerbitzatzen baduzu.

Gai oni, Lexotiren bertso onekin bukaera
eman zitzaion:

Izketan ere nola baitegun
beste askok dun grazia,
oi bezelako neskatx jator bat
nik ez al det merezia?
Neretzat eta zutzat bientzat
badet nun irabazia,
ni artu t'ondo pasako dezu
zere denbora guzia.

GAUERDI BATEKO BERTSOAK

Oiartzun'en, 1971-VIII-14'an, bertso eta koplak zaarren jaialdia ospatu zan. Kantatu zutenak, antolatzaileak eta abar, alkarrekin apaldu zuten gero. Apalondoko bertso-saioa asterakoan, onela kantatu zuan Lexotik:

Laugarren txanda neria da ta
nik ere artu biar parte,
bertsuk aitzeko zale dagonak
gu ixilik eotia kalte.
Apalonduan guk ez badugu
onik kantatutzen bate,
jate utsera etorri gâla
igual pentsatuko dute.

Lau bertsolari jardun ziran kantuan: Uzta-
pide, Koxme Lizaso, Ozentziyo eta Lexoti.

Urrengo txanda etorri zitzaionean, jaialdia-
ren antolatzailea *Intxixu* taldea izan baitzan,
onela kantatu zuan Lexotik:

Intxixu talde jatorra orrek
in ttu euntalako lanak,
pozez txoratzen atera gera
an izandutako danak.
Goguan artu, anai jatorrak,
bertsolariyan esanak:
txalo bikañak merezi ditu
ola portatutzen danak.

Urrengo bertso batean, jaialdiaren berri
onela eman zuan Uztapidek:

Egun auek bai egun alaiak
eta egun pozgarriyak,
gaurko festa orri begira zeuden
guziak pozez jarriyak.
Koplari zarrak agertu dira
ta bertsolari berriyak,
oraindik ere artista franko
badu Oiartzun'go erriyak.

Ozentziyok Juan Mari Lekuona eskertu
zuan, jaialdiaren zuzendaria bera izana zalako
jende aurrean:

Lenagoztikan emanda naukan
gizon jatorraren traza,
ni ere ola gaur etorriya
nazu Oiartzun'go plaza;

osasanatik elbar xamarra
ez nuen kantatzen aisa,
eskerrak lagun jator nuala
Don Juan Maria apaiza.

Bañan jaialdia Antonio Valverde *Ayalde* za-
naren omenez egiña baitzan, ura gogoratu zuan
Koxme Lizaso'k urrengo bertsoan:

Jai ondorean egun polit bat
gazteak dute berezi,
ta zeñengatik zer egingo zan
aurretik adierazi.
Gizon bateri eskeñ'iote,
leno zuan irabazi,
Aialde zanak gutxiagorik
etzuan ezer merezi.

Lexotik gai berari eldu zion:

Aitu gerade bear bezela
bertsoetako lanian,
danaren berri itzegingo det
ontatu geradenian.
Oaiñ apaldu ta bapo gaudeze
jana eta eranian,
arratsaldi au izan dedilla
Valverdi'ren izenian.

Puska batean ala jarraitu zuten; txandaka kantuan alegia. Bañan onetik ere geiegi txarra baita, Uztapidek bukaera eman nai izan zion saioari, jendea ez aspertzearren:

Egun batean danak esanda
litzake gauza tristia,
egun bat bukatuta segidan
etortzen baita bestia.
Ezta komeni ustutzerikan
emen almazen guztia,
nik pentsatu det biarko ere
banaka batzuk uztia.

Bañan Lexoti, ixildu bearrean, erronka jortzen asi zan:

Ozentziyok ta Lexotik emen
goitik eite'ute irrintzi,
Lizaso ta Uztapide onek
artu biar pazientzi.
Ez det esaten bertso-lanetan
dutenik talentu gutxi,
on xamarrak biak ere baño
gugana ezin iritxi.

Uztapidek bere txandan:

Pentsatu zazu jarri nai dula
mai onetan merituan,

nik bertsua bukatu orduko
asitzen da segituan
zartu ta aula naguela ta
artu nai iya ituan,
beste pare bat bota ezker
onenak bota zituan.

Lexotik:

Uztapide au bere ustetaz
arkitzen da ondradua,
jende guziyak emango dio
bertsolariyan gradua.
Merezi du ta oni ere zerbait
orain aitortzera nua,
baño ni ere, Manuel, nazu
oain baño geo obegua.

Uztapidek:

Lenoxiago egondu naiz ni
iya ixildu zorian,
artian ere bertso batzuek
sobre neuzkan memorian.
Lexoti or dabil estrapuzuka
eta iya erorian,
au da onena Gipuzkuan baño
bigarren kategorian.

Lexotik:

Uztapide au kanpeon zala
danak bagenekigun len,
kantatzeko nik ere badaukat
gizon batek ainbat kelmen.
Bigarren kategorin onena,
bertan ez al da nabarmen?
Zu ere orain probauko zaitut
zenbateraño zeraden.

Uztapidek:

Pentsamentu asko sortutzen dira
goizetikan arratsera,
azkenerako sartu gerade
oso bide narratsera.
Ez gera etorri gu Altzibarra
orrela alkar neurtzera,
pakiak geio balio du ta
juango al gera etxera?

Bañan Lexotik:

Uztapide onek ondo esan du
emen nere iduriko,
Ozentziyo ezik Lexotik etzun
aburikan erekiko.
Zuen kontrako arrazoyikan
ez det bertsotan jeikiko,

gure erdiya ez zazte eta
barka zazute betiko.

Uztapidek, bere azken bertsoa kantatu
zuan:

Ongi entzun det lengo bertso
Lexoti jaunen esana,
berak dionez orren erdia
iñoiz ez naiz ni izana.
Nik aski diat oraingo eta
bakarrik egin zak lana,
pentsatzen badek onena dala
atzena ixiltzen dana.

Ta Lexotik:

Ni egingo naiz argi ta garbi
emen arrazoian jabe,
zer esango'uten biar goizian
badakizu alde-alde:
ni Altzibar'ko sozidadian
ez nabillela debalde,
eta etxera jua nitzala ba
azkenik kontrayoik gabe.

Koxme Lizaso'k ere, Uztapidek bezela egin
nai izan zuan: bere azken bertsoa kantatu eta
etxeke bidea artu:

Utzi ditzagun langa, malla ta
utzi ditzagun ba trabak,
ontaz aurrera neurririk gabe
jarko dira gure aubak.
Ta ordubata jo zuan eta
laister ditugu guk laubak,
azken bertsua auxen daukat nik,
agur oraingoz, kristaubak.

Bañan Lexoti etzegoan orretarako eta berari
eraso zion:

Olako bertsuk eztio ematen
Lexotikuai pozikan,
soziedadian eztet esango
biar eztan jolasikan.
Beiñere eztet nik bertsotan bota
izketa aldrebesikan,
ik nai dekena egin zak, Koxme,
nik etzadukat presikan.

Ala, Koxme Lizaso'k segi egin zion kanta-
tzeari; bañan puntu motxean. Andik aurrera,
Lexoti eta bera jardun ziran, saio luzea egiñez.
Bertso guziak ezin onera aldatu; bañan ona
emen banaka batzuk:

Lizaso'k:

Ez al dek ontzat artzen
nere iritzia?
Gizonantzat gauz txarra
ola ibiltzia.
Egunez lana einta
gauzez lo galtzia,
ori ez leikek izan
bizitza luzia.

Lexotik:

Gabez ibilli leikek,
motell, umil-umil,
maia ontan bagabiltz
zenbait gizon abil.
Lexoti ementxen ai dek
bestiakin trankil,
sei zak bakar-bakarrik
presaka ba(y)abil.

Lizaso'k:

Biyar goizian ere
bazedukat lana,
batere uste gabian
dator neregana.

Gabian izaten diau
ontako afana,
eta biaramonian
eundoko galbanā.

Lexotik:

Biyar goizeko ez neza-
ke nik artu parte,
nork eju eiña badek
iretzako kalte.
Bizimou diferentia
zaukagu nonbait e,
nik etzaukat presikan
amarrak bitarte.

Lizaso'k:

Pobriari lanikan
etzaio faltako,
ortatik suelto badit,
motell, neretzako.
Orrengatikan niok
argal edo flako,
asko egin bear baida
bizimodurako.

Lexotik:

I're inbiriosua
egin itzan jaio,
lanian egiten duk
makiña bat saio.
Bizitzeko zertako
saiatu ortaño?
Ire burua ondatzen
pobria ez aiz baño.

Lizaso'k:

Lezoti lan-kontuan
ez degu berua,
geroko ontasunez
beti esperua.
Lana gutxi egin ta
luzaroan lua,
era orretan eztek
irixten zerua.

Lexotik:

Zeruko San Pedro're,
motell, zaukat anai,
ari paoria eskatuta're
aginduko dit bai.

Lana ez eitegatik
eingo nitek zernai,
ik ori maite badek
ortxe konpondu ai.

Saio oni bukaera emateko, onela kantatu
zuan Lexotik:

Despedirako esan ber
al dizkiyau denak?
Ondo bizi naizelako
askok ttuzten penak!
Nik buruz giyatzen, motell,
bazauzkak kelmenak,
kolperik egin gabe
ni ederki bizi nak.

Bañan orduantxe Mitxelena azaldu zan,
bere jatetxeko lanak eginda-edo. Ta Lexotik:

Ai, Mitxelena, egik esanda
seriyo ez jarri kopeta,
batek bestiai faltatu bêrrik
etzadukagu ezerta.
Esplikatuko'it lenago emen
zer egin zaigun ba gerta,
ik e nê mendin geatu bearko duk
besteak ala ituk eta.

Mitxelena'k:

Erantzuna're ekarritzen dik
orrenbeste itzegitek,
gure Lexotin kategoriya
zer dan len e bazekitek.
Ire mendean egon bearra
baldin izaten baditek,
iretzat ari badira jornal
ori kobratuko ditek.

Lexotik:

Ik zertarako etorri ordu
ein dek diruaren galde?
Interes piskat badaukakela
bazakiyau alde-alde.
Gu berriz, motell, ibiltzen gaituk
bêr dan tokiyan enbalde,
pozaren pozez lanian ai nak
gaur e jornalikan gabe.

Mitxelena'k:

Lexoti onek benetan artu
ez al du nere zipua?
Ik orain deken joera ori
daukak bizi guzikua.

Bazakiyegu ez aizela izan
i lanaren grazikua,
kobratu gabe aitzia ori
ez dek lendabizikua.

Lexotik:

Edozer gauza ondo dalako
esaten du Mitxelena'k,
kobratu gabe orrek aitzeko
falta baititu kelmenak.
Nik emango'izkat argi ta garbi
emendik nere ordenak:
auzo guziyak serbitzen ditik
biotz onekua denak.

Mitxelena'k:

Aizak, Lexoti, ire bertsoai
billatu diok babesas,
orain kantatu dekena ori
ez al uan aldrebesa?
Akaso igual edukiko dek
serbitutzeko promesa,
baño ez dagon lekutik eiten
ez dek izaten erreza.

Lexotik:

Ai, Mitxelena, eztek billauko
Lexotiren pekatua,
nai baldin baduk entenditu nik
gaur esango'it predikua:
nik baño geio ik eztekela
jarriko nitek lepua,
gaztetandikan, motell, Lexotik
etxian badik naikua.

Mitxelena'k:

Lexoti onek gaztetandikan
artuta zuen izena,
garbiro asko esango'izutet
ni akordatzen naizena:
lanari iges sarri eginda
festara altza maizena,
zartuta ere oaindik eiten du
orduan eiten zuena.

Lexotik:

Mitxelena au langille ona
egiten zaigu azaldu,
nik olakuak aldamenetik
egiten ditut bialdu.

Ezpaída ibili ni bezin gusto,
ain leial eta ondradu,
onek ere jai egingo luke
nik ainbat juiziyo balu.

Mitxelena'k:

Gure Lexotik len e esan ditu
izandu ditun promesak,
au beñere ez du kezkatu izan
lanarik eduki-ezak.
Nundik edo andik nun pasako'itun
al bada egun errezak,
aurrera ere intentziyu oi
urte askuan gorde zak.

Lexotik:

Berrogei eta sei bat urtian
nik izan ditut kelmenak,
lanik ein gabe nola nabillen
arriturik daude denak.
Bate bururik eztutena oik
artutzen dituzten penak!
Aurrera ere ez al du ingo
oaiñ arte egin duenak?

Mitxelena'k:

Orain artean pasatu dana
aurrera pasatu laike,
berrogei eta sei urti ontan
lanik eztek izan maite.
Aurrera eta sasoi oberik
eztek billako nonbait e,
onez aurrera errukaldu ta
emango ditek zerbait e.

Lexotik:

Orain bitarte alper-kontuan
izandu ditit apanak,
buelbaka ortxen ibillitzen nak
bazterra utzita lanak.
Batez bezela artutzen ditit
auzokuaren esanak,
baldin premiyan tokatzen banaz
lan pixkat emango al nak?

Mitxelena'k:

Lenago ere bein baño geio
i aiz lan-tokira juana,
bañan an ere agertu izan dek
txit mobimentu baldana.

Aurrera ere iregatican
or geldituko dek lana,
ik bera baño naiago dek ba
lanak ematen duana.

Lexotik:

Oaiñ ogei urte arkitu nintzan
Pasaiko muellin galako,
denbora aietan pulsun ibilli
nuen eun kiluak pranko.
Zakuk arrika ibiltzen nitun,
ori garbi det kantako,
lantegi ura nik utzi nuen
berau alperra zalako.

Mitxelena'k:

Bueno, Lexoti, alper-kontutik
etzagun sobra izegin,
bestela gure enfermedadez
zenbait kutsatu ez dedin.
Batzuak poza artuko ditek
eta beste batzuek min,
ik aurrera're len bezelaxe
al dekena ortik egin.

Lexotik:

Eskolik bate eztaukat eta
ez naika izan abilla,
baño zertako jua biar det
bizitza obian billa?
Milloiak ez ttut sobrate baño
pezetak baditut milla,
nere inbiriz iñor badago
nai badu izorra dedilla.

Izugarri saio luzea egin zuten; bañan, len
esan bezela, ezin ba bertso guziak emen agertu.
Azkena Uztapidek bota zuan, eskatu ere ala
egin zion jendeak eta:

Oinbeste ordu joan ezkeru
estututzen da arnasa,
ordu auetan zar bat poztutzen
ez da izaten erraza.
Pixka goizago baldin balitza
egongo nitzake lasa,
neretzat gaurko aski da eta
guztiok gau ona pasa.


ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Zabala*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).

29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara. (*Aitua*).
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*. (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma. (*Aitua*).
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*. Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria. (*Aitua*).
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria. (*Aitua*).
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria. (*Aitua*).
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak. (*Aitua*).
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*. (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak. (*Aitua*).
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak. (*Aitua*).
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).

- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika eta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabean. (*Aitua*).
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90 *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak. (*Aitua*).
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak. (*Aitua*).
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*).
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria: (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala: Baso-mutillak.*
135. *A. Zavala: Jaioak bizi nai.*
136. *A. Zavala: Noe'ren ontzia.*
- 137-138. *Ataño: Txantxangorri kantaria.*
139. *A. Zavala: Soldaduzkako bertsoak.*
140. *A. Zavala: Nekazariak bai miseriak.*
141. *Bertsolariak: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).*
142. *A. Zavala: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.*
143. *J. J. Irazusta: Nork bere bidea (I).*
144. *J. J. Irazusta: Nork bere bidea (II).*
145. *J. J. Irazusta: Nork bere bidea (III).*
146. *A. Zavala: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.*
147. *Ataño: Txori.*
148. *I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (I).*
149. *I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (II).*
150. *I. Alkain, A. Zavala: Gerrateko ibillerak (III).*
151. *Mattin Treku: Etxe xokotik kantari.*
152. *Xalbador: Herria gogoan.*
153. *J. K. Zapiain, Ataño: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.*
154. *A. Zavala: Jan-edanaren bertsoak (I).*
155. *A. Zavala: Jan-edanaren bertsoak (II).*
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola: Aritz beraren adarrak.*
157. *Elkar lanean: Lexoti bertsolaria.*



AUSPOA
LIBURUTEGIA